

EUSKARAREN BERRESKURATZEA

Hizkuntzak biziberritzeko gako batzuk



DVD honetan mende erdi bat atzera egin eta garai hartan Euskararen transmisioa eten zuen familia baten testigantzatik abiatuz, azken 40 urteotako ibilbidea eta berreskuratze prozesuaren hainbat gako bildu ditugu euskalgintzako zenbait kideren laguntzarekin.

Egilea: Garabide Elkartea

Jose Arana, 13. 20540 Eskoriatza. Gipuzkoa.

Tel: 943250397.

www.garabide.org / info@garabide.org

Koordinatzailea: Lore Agirrezabal Pertusa

Kolaboratzaileak: Jon Sarasua, Urko Kolomo, Amaia Antero, Iñigo Iñurrategi, Andoni Mujika, Jose Anjel Aldai, Julen Arexolaleiba, Joseba Intxausti, Dionisio Amundarain, Xamar, Lore Erriondo, Joxerra Gartzia, Edurne Alegria, Maite Jaio.

Diseinua:  komunikakzioa

Inprenta: Gertu

ISBN: 978-84-613-6836-5



ASKE ZARA:

- Lan hau kopiatu, banatu eta jendaurrean hedatzeko
- Lan eratorriak egiteko

BALDINTZA HAUETAN:

- ① **Aitortu:** Lanaren kredituak aitortu behar dituzu, egileak edo baimendunak zehaztutako eran (baina ez aditzera eman ez haien babesa duzunik edo haiek obraren erabilera hori babesten dutenik).
- ② **Ez merkataritzarako:** Ezin duzu lan hau merkataritza xedetarako erabili.
- ③ **Partekatu baimen beraren arabera:** Lan hau aldatzen baldin baduzu, edo lan eratorri bat sortzen baduzu, sortutako lana banatu dezakezu soil-soilik baimen honen berdin-berdineko baten mende.



EUSKARAREN BERRESKURATZEA

Hizkuntzak biziberritzeko gako batzuk

Koordinatzailea: Lore Agirrezabal Pertusa

garabide
erregapir



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



GIPUZKOA
zurekin, aurrera

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
Euzkaren Garapenerako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística
Dirección de Promoción del Euzkara



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON
EHAKUNE SAILA



MONDRAGON
UNIBERTSITATEA
HEZKUNTZA, ENBESKUNTZA
ETA KULTURA SAILA



lanki
LANKI EUSKARAREN
KUTXA



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

FAGOR



EMUN
EUSKARAREN
KUTXA

AURKIBIDEA

Hitzaurrea.....	6
Sarrera	8

Hizkuntzak berreskuratze markoa	11
Hizkuntza nortasunaren ardatz	11
Soziolinguistikaren oinarriak.....	19
Hizkuntzak galbidean.....	25
Hizkuntzak berreskuratze bidean	28

Euskararen esperientzia.....	35
Gure hizkuntzaren historia	35
Berreskuratzea amets.....	41
Hizkuntza gaurkotzeko bidea	43
Euskaingintzaren hastapena	44
Euskaingintzaren fruitua	56

Sintesia: Oinarrizko ikasgaiak.....	59
Euskararen berreskuratzearen zenbait gako.....	59
Mezuak, euskararen esperientzia oinarri hartuta ...	65

HITZAURREA

Mina ezagutzen duena besteren mina ulertzeko gai da. Eginahala ezagutzen duena ahaleaginean dabilena konprenitzeko gauza da. Norberak bizi duen esperientzia da pertsonen artean enpatia sortzen duena. Gauza bera gertatzen da kolektiboen eta herrien artean ere.

Ezaugarri ezohikoak dituen hizkuntz komunitatea osatzen du euskarak: jatorrizko hizkuntza da eta aldi berean mendebaldekoa. Hainbat ikerketaren arabera munduko hizkuntzarik zaharrenetakoa izan daiteke, eta era berean, hizkuntza berritua eta modernizatua da. Zailtasun handien artean berreskuratze prozesuan dagoen hizkuntz komunitate txiki samarra osatzen dute bere hiztunek. Azken 50 urteotan biziberritzearen lehian dabil, ezintasun garrantzitsuekin, eta zenbait esparrutan aurrerapauso interesgarriak lortu ditu.

Hainbat lorpen eta muga izan dituen berritze eta berreskuratze esperientzia hau partekatzeko gogoak mugitzen gaitu. Norekin partekatu? Menpekotasun eta minorizazio prozesuak jasaten dituzten beste herrieekin, baina batez ere, beren identitatearen ardatza biziberritzeko indarra eta bulkada sentitzen dutenekin. Zergatik partekatu? Partekatzea bihotzetik sortzen da. Bihotzetik datorrena burutik pasata, bi arrazoi bururatzen zaizkigu.

Batetik, sumatzen dugu euskararen esperientziak munduko jatorrizko zenbait hizkuntzaren berreskuratze bidea argitu deza-keela. Aurreikuspenek diotenez, mende honetan hizkuntza asko desagertuko dira. Munduan diren jatorrizko hizkuntza gehienak epe ertainera desagertuko diren hizkuntzen zerrendan daude, eta galdu egingo dira une honetan duten joera errotik aldatzen

ez bada. Honetan bada datu kezkarri bat: herri gehienak ez dira beren hizkuntzarekin gertatzen ari denaren larritasunaz ohartzen. Gainera, ez dago biziberritzeko estrategiei buruzko kontzientzia garbirik. Egoera honetan, uste dugu euskarak izan duen bilakaera partekatzeak eta ezagutzera emateak ekarpena egin dezakeela munduko bazterreko hizkuntzen plazan.

Bestetik, ukitzeko eta ukituak izateko partekatzen dugu, energiak jaso eta ikasteko. Euskararen komunitatea borrokan, tentsioan eta eginahalean dabilen komunitatea da. Amets bat bizi du, izaten jarraitzeko, eraberritzeko eta transmititzen jarraitzeko ametsa. On egiten digu mina eta ahalegina bizi dituzten beste herri batzuekin elkartzeak. Haien esperientziekin elkarrekikotasuna bizitzeak motibatzen gaitu. Suspertu egiten gaitu gurekin giza aniztasunaren ametsa partekatzen dutenak ikusteak, eta haiek gu ikusteak, zirikatzek eta zirikatuak izateak, igurzteak eta igurtziak izateak.

Garai bakoitzak bere zailtasunak eta aukerak eskaintzen dizkigu. Gaur egun, baliabide teknologikoek gerturatu egiten gaituzte. Neurri batean, gure esku dago izan eta komunikatu nahi dugunaren norabidea hautatzea. Euskararen komunitateak nazioartera zubiak zabaltzeko duen gogoak bultzatuta sortu da Garabide, eta jatorrizko hizkuntzen esperientziak batzen eta partekatzen hasi da. Horretarako, besteak beste, bilduma didaktiko bat osatuko du datozen urteetan, eta esku artean duzuna da sorta horretako lehen argitalpena. Bertan, euskararen biziberritzearen sintesia bildu dugu, eta mende honetan hizkuntzak berreskuratzeko zenbait gako agertu.

Garabide Elkartea

SARRERA

Hizkuntzen berreskuratze prozesuetan oinarrizko hiru elementu uztartzen dira: eskuak, burua eta bihotza. Euskararen berreskuratze prozesuan ere hiru elementu horiek agertzen dira: estrategiez eta ekimenez osatutako marko teorikoa (burua), euskaldunen hizkuntza komunitateak daukan izan nahia eta bizi nahia (bihotza) eta kolektiboen nahiz norbanakoen ekimena (eskuak).

Liburu honen lehen zatia ren xedea burua edo adimena elikatzea da. Horretarako gure esperientziatik sortutako marko teoriko unibertsala sintetizatu dugu. Halaber, hizkuntzen desagertze eta berreskuratze prozesuak, hizkuntza aniztasunaren onurak eta jatorrizko herriak jasaten ari diren asimilazio kulturalaren arriskuak aztertu eta sakondu ditugu. Burua eta adimena elikatzea garrantzitsua da prozesu hauetan, baina teoriari sentimendua erantsi ezean, guztia hitz huts hotzetan geratzeko arriskua izaten da.

Hizkuntzen eta identitateen berreskuratze prozesu guztiek bihotzetik abiatu behar dute, hizkuntz komunitatearen izan nahi horretatik. Hizkuntza biziberritu nahi duen komunitateak hizkuntzaren balio nagusia ulertu, barneratu eta sentitzea funtsezkoa da. Izan ere, hizkuntza bakoitzak mundua ikusteko modu bat eta bere jatorrizko hitzunen kultura islatzen ditu. Komunitate bakoitzak munduarekin duen harremana, bere filosofia eta makrokosmosa mikrokosmosarekin uztartzeko duen moduaren isla da hizkuntza. Horrez gain, kosmobisioaren, ohituren, tradizioaren eta herrien kulturen transmisioan ezinbesteko elementua da, hizkuntzaren bidez osatzen baita pentsamendua eta pentsamendu hori hizkuntzan bertan gauzatzen baita. Hortaz, esan dezakegu, hizkuntzak identitatea ematen diela hitzunei, norbanakoei. Beraz, hizkuntza galtzearekin batera, herri baten historia, bere ezagutzak eta kultura desagertu egiten dira.


Bigarren zatian, teoriatik errealitatera pasatuz, euskararen esperientzian oinarritu gara eta duela lau zapabost hamarkada hizkuntza biziberritzeko sortu ziren hainbat herri ekimen gogo-

ratu ditugu. Hamaika herritar izan ziren beren eskuak, burua eta bihotza eman zituztenak garai hartan amets hutsa zena egia bihurtzeko. Ahalegin hari esker euskara antzinako hizkuntza izan arren, XXI. mendean hizkuntza bizia izatera iritsi da. Gaur egun, ordura arte ez bezala, euskara hedabideetara, Internetera, unibertsitatera eta administrazioa iritsi da.

Bukatzeko, sintesi moduan, gure ustez euskararen biziberri-
tzea bideratu duten zenbait gako aurkeztu ditugu, hizkuntza
minorizatuak dituzten herrientzat beren berreskuratze
linguistiko-indetitarioran baliagarri izan daitezkeelakoan.

Hemen bildutakoa osatzeko Garabide Elkartek DVD bilduma bat argitaratuko du liburu bakoitzarekin. Liburuan bezala, lehenengo DVDan ere Euskararen berreskuratzean egindako ibilbide orokorra jaso nahi izan dugu. Une honetan beren jatorrizko hizkuntza galtzear daudenen lekuan jartzeko asmoarekin, euskal hiztunek ere antzerako egoerak bizi izan zituztela gogoratu nahi izan dugu. Mende erdi bat atzera egin eta garai hartan Euskararen transmisioa eten zuen familia baten eta egoera jasangaitz baten ondorioz Euskara baztertu zuen lagunaren testigantzak jaso ditugu. Horrez gain, euskalgintzako zenbait kideren parte hartzeari esker, azken 40 urteotako ibilbidea eta berreskuratze prozesuaren gako nagusiak bildu ditugu.

Ez genuke amaitu nahi, bilduma honetako lehen argitalpena plazaratzean modu batean edo bestean lagundu diguten pertsona eta erakundeei gure esker ona adierazi gabe. Era berean, bere hizkuntzaren eta kulturaren alde lanean ari diren pertsona eta taldeak zoriondu eta animatu nahi ditugu, hizkuntz eta kultur aniztasuna mantentzeko beren ahaleginari euts diezaioten. Izan ere, hizkuntz komunitate batek bere hizkuntza galbidetik ateratzeko erabakia hartzen duenean, berreskuratze bidearen erdia egina baitauka. Has gaitezen, beraz, inposizioz kendu zigutena konbentzimenduz eta erakargarri bilakatuz berreskuratzen.



HIZKUNTZAK BERRESKURATZEKO MARKOA

Hizkuntza nortasunaren ardatz

Hizkuntza da gizakion berezko komunikazio tresna eta adierazpide nagusia. Umetan etxean jasotzen dugun hizkuntzaren bidez hasten gara komunikatzen, eta inguratzen gaituena ulertzeko modua jasotzen dugu hizkuntza horren bidez; gure identitatearen parte garrantzitsu bihurtzen da.

Munduan milaka hizkuntza daude eta horien bidez, besteak beste, belaunaldiz belaunaldi, eskualdekako ingurunera moldatzeko jakinduria transmititu da. Gaur egun, ordea, hizkuntza gutxi batzuen nagusitasunak beste hizkuntza askoren transmisioa desagertzeko arriskuan jarri du, eta, ondorioz, hainbat mundu ikuskera eta jakinduria ere galtzear daude.

Hizkuntz komunitatea identitatearen oinarri

Hizkuntza gizakiek beren artean komunikatzeko sortutako tresna da, hominidoek pertsona bihurtzeko egindako bidean sortu zuten tresnarik garrantzitsuena eta eraginkorrena.

Gaur egun, oso zabaldua dago irudi batek mila hitzek baino gehiago balio duela, baina hitza oso garrantzitsua da bai pentsamenduaren sorkuntzan, bai mundua irudikatze moduan: erabiltzen ditugun hitzen bidez erakusten dugu mundua eta geure buruaren erretratua eskaintzen dugu.

Historian zehar hizkuntza eta kultura izan dira giza komunitateen identitatearen oinarria. Hizkuntzak dira, nola-bait, kulturen DNAk. Izan ere, hizkuntzek hiltun komunitateek sortutako pentsamendu eta ideien unibertsoa gordetzen dute.

Hizkuntza eta identitatea uztartuta daude. Maila indibidualean, pertsonen identitatea ez du hizkuntzak bakarrik osatzen, baina hizkuntza-aren bidez gara edo adierazten gara. Hizkuntzaren bidez, haurrak bere nortasuna hartzen du, pertsona izatearen ezagutza hizkuntza horren bidez heltzen zaio, horixe baita bere barne pentsamenduaren hizkuntza. Hizkuntzaren barrunbean biltzen eta

barrentzen dira hiltunaren oroimen, adimen eta sentimenez zer guztiak.¹

Identitate kolektiboetan ere oinarri nagusietako bat da hizkuntza. Izan ere, hizkuntzek herri bakoitzaren ezagutza gorde dute belaunaldiz belaunaldi, eta belaunaldi bakoitzak ezagutza berriak gehitu dizkio. Hizkuntzak gordetzen ditu bere hiltunen komunitateak mendeetan landu eta garatu dituen jakinduria eta ezagutza, mundu ikuskera, ohiturak, tradizioa... Hizkuntzarekin lotzen dute errealitatearen balorazioa eta besteekiko interkomunikazioa. Hau da, munduan gizon/emakume izateko beren era propio eta ordezkazina zertzen duen huraxe, hain zuzen.

Bestalde, hizkuntza baten galera, bere hizkuntz komunitatearentzat ez ezik, gainerakoentzat ere izugarriko galera da. Hizkuntza bat galduz gero, giza talde horrek munduaz duen ikuspegia ulertzeko elementu ordezkazina galtzen da. Hizkuntza baten erabilera murrizten hasten denean, hizkuntza horren bidez arbasoengandik transmititu den kultura fosilizatzen hasten da, pixkanaka desagertzeraino. Bizia zen hizkuntza hartatik hiztegi bat eta bere gramatika baino ez dira geratzen, eta bere bidez belaunaldiz belaunaldi transmititutako kultura eta jakinduria guztia izoztuta geratzen da. Morfologiak

1 Joxe Manuel Odriozola. *Euskalgintzaren lekukoak*. Elkar. 2004.



eta fonologiaz osatutako fosil bilakatzeko da, museotarako edo filologoen ikerketetarako langai bihurtzen da.

Gizakiok eta gizataldeok, geure nortasunaren oinarriak hizkuntzaren bidez finkatzen ditugu, eta hizkuntza galtzearekin jatorrizko herriak bere mundu sinbolikoa galtzen du, bizitzen ari den lurraren zentzua galtzen du, lur horri izena eta izana ematen diona galtzen ditu. José María Sánchez Carrión *Txepetxe*²

dioen bezala, «hizkuntza da gizakien lehen komunitatea, estatuak eta koiuntura politikoak baino zaharra- goa, sakonagoa eta benetakoagoa»³.

Hizkuntza, beraz, gizakien arteko komunikazio tresna ez ezik, kosmobi- sioaren, ohituren, tradizioen eta herri kulturen esperientziaren transmisio- rako tresna da. Norbanakoei identita- tea ematen die, eta bere galerak herri baten historia, jakintzak eta kultura bizia desagertzea eragingo luke.

2 José María Sánchez Carrión *Txepetxe*: hizkuntzalari.

3 Jon Sarasua. *Biziaren Hizkuntzak: Txepetxe- kin solasean*. Gara. 1997.

Ama hizkuntza

Gure ama hizkuntza, belaunaldiz belaunaldi eta ahoz aho etenik gabe iritsi da guganaino.

Amaren hizkuntzak jarri dio ahotsa gure hiztun komunitateari. Edo bestela esanda, hiztun komunitate honek eman dio ahotsa belaunaldiz belaunaldi amarengandik jasotako hizkuntzari. Izan ere, gure hizkuntza ez baitzen izango bere hiztunik gabe, eta hiztunak ez liraketeke izango oztopo eta traba guztiak gaindituz seme-alabei beren jatorrizko hizkuntzan egin dieten guraso horiek gabe. Ahalegin horri esker, gaur ere, garai batean bezala, amaren sabeletik entzundakoari ahotsa emanez jarraitzen dugu.

Izan ere, gure hizkuntza bizirik egotea etxeko transmisioari, gurasoengandik seme-alabenganako transmisioari zor zaio. Eta horretan, batez ere, emakumeak izan dira gure hizkuntza etxeetan gorde eta ahoz aho bizirik mantendu dutenak.

**Amaren sabeletik erditzen gara,
ama hizkuntzaren sabeletik.**

Jon Maia

Familia: belaunaldien arteko zubia


Sarritan hezkuntza sistemari egotzi izan zaio hizkuntza baten bilakaeraren errua edo arrakasta. Egia da hezkuntzak garrantzi handia duela, baina ez da bere kabuz hizkuntza baten bizi-raupena ziurtatzeko gai. Hizkuntzaren erabileran, eragin handia du etxeak, familiak. Gurasoak eta haurrak biltzen dituen eremuan (familian) gauzatzen da belaunaldien arteko zubia eta gurasoen hizkuntza-jokaerak sakoneko ildo afektiboa ezartzen du seme-alaben hizkuntza-jokaeran.

Euskal Herrian hori frogatzeko aukerarik izan da. Lasarte-Orian (Gipuzkoa), esaterako, 2003an egindako ikerketaren⁴ emaitzak oso argigarriak dira familiak hizkuntzaren erabileran duen garrantziari dagokionez. Bertan ondorioztatzen denez, gazteen artean Euskararen kale-erabilera finkatzeko garaian, etxearen eragina eskolarena baino askoz ere nabarmenagoa da. Etxean Euskara jaso duten gazte gehienek (10etik 8k) lagunekin ere Euskaraz egiteko joera izaten dute. Aldiz, Euskara eskolan soilik ikasi eta jaso duten gazteen artean 10etik 2k baino ez du erabiltzen lagun euskaldunekin hitz egiterakoan.

4 Pello Jauregi Etxaniz. *Euskara eta gazteak Lasarte-Orian-II. Lasarte-Oriako Udala*. 2003.

Aho hortzetatik
emango dizut nire esnea;
fonemak, silabak, hitzak, esaldiak...
neure beste esnea.
Zure abestiaren fonetika,
zure ipuinen lexikoa,
zure jolasen ortografia,
zure sentimenduen sintaxia,
zure pentsamenduaren gramatika.

Miren Agur Meabe



Familian hizkuntzarekin batera transmititzen den afektibotasun hori dela eta, jatorrizko hizkuntzan diharduten gurasoen kopurua ugaltu ezean, belaunaldi berrien artean nekez haziko da hizkuntza horren erabilera. Haurtzaroan eskolaren eta familiaren eragina uztartu egiten dira, baina gaztaroan eskolaren eragina "erori" eta familiatik datorren sakoneko arrasto afektiboak eusten dio gehienbat gazteen hizkuntza-jokaerari.

Etxearen eragina putzu sakon batekin aldera daiteke: putzua lur azpian egonik ez da ikusten, baina norbere iturriaren eten-gabeko sorburua da. Helduen belaunaldian dago, beraz, benetako gakoa, haiek seme-alabekiko harremanetan maitasuna eta hizkuntza estuki lotzen baitituzte, seme-alabengan oso-oso sakoneko arrastoa utziz⁵.

Familia edo etxea da hizkuntza baten erabilera bermatzeko abiapuntua, oinarri-oinarria. Hor huts egiteak kalte handia eragin diezaioke hizkuntza horretan bizi nahi duen komunitateari. Izan ere, hezkuntza, komunikabideak, administrazioa eta etxetik kanpo dauden beste hainbat esparru hizkuntza horretan egitea ez da nahikoa izango hizkuntzarekiko afektibitatea transmititzen den gunean —familian— huts egiten bada. Bestalde, etxetik kanpoko esparruetan hizkuntza hori erabiltzen ez den leku batean bizi bagara, are kaltegarriagoa izango da etxeko transmisioan huts egitea.

Kanpoan erabiltzen ez delako, etxean erabiltzeari uztea, hizkuntza heriotzara kondenatzea da.

Hizkuntza aniztasuna kolokan

Hizkuntzak dibertsifikatu zirenetik, gutxienez, 30.000 (zenbaiten ustez, 50.000) sortu eta desagertu dira historian zehar, horietako asko, gainera, batere aztarnarik utzi gabe. Hizkuntza gutxi izan dira edo dira 2.000 urte baino gehiagoz bizi izan direnak. Horien artean dira, besteak beste, Egiptoera, Mandarina, Greziera, Latina, Persiera, Tamila, Sanskritoa, Hebreera, Euskara... Batzuk, Latina bezala, zibilizazio hizkuntza izan ziren, eta luzaroan iraun zuten arren, hizkuntza hilak dira gaur egun.

Urtero munduan hamar hizkuntza galtzen dira, bataz beste. Baina azken urteetan desagertze prozesua azkartzen ari da eta epe laburrean hizkuntza gehienak desagertzeko arriskuan egon daitezke.⁶

Globalizazio ekonomikoak eta estatuen asimilazio prozesuek eraginda geroz eta hizkuntza eta kultura gehiago daude

5 Pello Jauregi Etzaniz. *Oinarrizko taldeak eta Euskara: bihotzaren arrazoiak*. 2009-03-13.

6 UNESCO. *Sharing a world of difference: the earth's linguistic, cultural, and biological diversity*. UNESCO-Terralingua – World Wide Fund for Nature, 2003.

arriku horretan. Izan ere, globalizazioak herrien arteko komunikazioa erraztea- rekin batera, mendebaldeko herri jakin batzuen bizi ikusmoldeak, kultur modak, balioak eta hizkuntzak zabaldu eta ezarri ditu tokian tokikoak aintzat hartu gabe.

Azkenean, kultur aniztasuna sustatu beharrean, globalizazioaren izenean kulturak uniformatzen eta pentsamendu bakarra ezartzen ari dira mendebaldeko potentzia nagusiak.

Pentsamendu bakarra eta homogeneizazioa hainbat iturritatik edaten dugu egunero, baina eragile nagusien artean azpimarragarria da hedabideen eragina; irrati eta telebistaren bidez, etxeko sukalderraino iristen da mendebaldearen mundu ikuskera. Horrez gain, landa girotik hirietara gerturatzeak ere etxerraino ekarri du homogeneizazioa, gaur egun, hiriak baitira globalizazioaren eroale nagusiak.

Gero eta mundu konplexuago, aldakorrago eta intererlazonatuagoan bizi gara. Gaur egun, Ingelesa, Alemana, Gaztelania, Japoniera, Txinera edo Errusiera bezalako hizkuntzak alde batera utzita, denak dira hizkuntza txikiak. Horien arteko diferentzia elebakarren portzentajeak, ofizialtasun mailak eta hizkuntz komunitatearen bizi-indarrak bakarrik markatzen dute.

Munduko biztanleen %97k hizkuntzen %4 hitz egiten du ama hizkuntza gisa, eta hizkuntzen gainerako %96a biztanleen %3k hitz egiten du. Alegia, hizkuntza gutxi batzuk dira gehien hitz egiten

direnak. Urtetik urtera, gainera, gero eta hitzun gehiago izango dituzte eta ondorioz gainerako hizkuntzen desagertzea bizkortu egingo da.

Orain arte ez bezala, zenbait hizkuntza atzera bueltarik gabeko egoerara iritsi dira, eta beste zenbait bidegurutzean daude, inflexio puntura iritsi dira. Hizkuntza horiek orain arte inkontzienteki transmititu dira, kasu gehienetan lurralde edo eremu jakin batean mintzatzen ziren hizkuntza bakarrak ziren. Gaur egun, ordea, ez dira beren inguru hurbilean erabiltzen diren hizkuntza bakarrak. Ondorioz, jatorrizko hitzunek kontzienteki erabaki behar dute beren ondorengoei transmititu nahi dieten hizkuntza zein den. Beren esku dago datorkien hizkuntza asimilatu eta beraiena baztertzea, edo egoera horri aurre egiteko urratsak ematen hastea, hau da, diren horretan oinarrituta hegemonia ireki baterantz jotzea. Alegia, beren hizkuntza bermatzea, beste hizkuntzei eta kulturei bizkarra eman gabe.

Hizkuntzen eta kulturen desagertze prozesu hori gure begien aurrean ari da gertatzen eta munduko hainbat hizkuntza eta kultura, txiki nahiz handi, beste hizkuntza eta kultura batzuek erabat irentsiko dituzte, horren kontrako neurri eraginkorrik hartu ezean.

**Jatorrizko hitzunek
kontzienteki erabaki behar
dute beren ondorengoei
transmititu nahi dieten
hizkuntza zein den.**

Hizkuntza ekologia

Hizkuntza aniztasuna arrisku larrian dago eta horrekin batera baita kultura eta identitate askoren bizitza ere. Izan ere, hizkuntzek hiltun komunitateek sortutako pentsamendu eta ideien unibertsoa gordetzen dute. Hizkuntza bakoitzean dago gordeta hiltun komunitateak eraiki duen bere ingurunearekiko harremana, formulatu duen bere inguruarekiko pentsamendua, sistema filosofikoa eta ulermena. Beraz, hizkuntza bat galtzean, giza pentsaera baten mundu ikuskera galtzen da.⁷

Hizkuntzalari eta antropologo arabera, kulturek mantentzen eta hizkuntzek bideratzen duten ideia-aniztasuna izaki bizidun zein ekosistemen aniztasuna bezain beharrezkoa da gizateriaren eta planetaren biziraupenerako.

Ekologiaren arabera, ekosistema sendoenak ekosistema anitzenak dira. Horrek aniztasuna egonkortasunarekin zuzenki lotuta dagoela adierazten du. Naturan aurki dezakegun espezie aniztasun horri bioaniztasuna deitzen zaio. Bioaniztasun maila "bizia" izatea ezinbestekoa da ekosistemen funtzionamendu egokirako. Gaur egun, ordea, planetak bioaniztasunaren %1 galtzen du urtero, animalia eta landare espe-

zieak ohikoa dena baino azkarrago ari dira desagertzen beren ingurune naturaletik. Ekosistemak beren egokitzeko gaitasuna galtzen ari dira eta etengabe hondatzen eta desagertzen ari dira.

Gizakion biziraupena ere milaka urtean ingurune desberdinetara egokitzeko izan dugun gaitasunari esker bermatu da. Gaitasun hori, hain zuzen, aniztasunean oinarritzen da; hizkuntza eta kultura aniztasunak gizakiok ingurune eta egoera ezberdinetara egokitzeko aukerak gaitasunaren adierazle dira. Giza komunitateek kultura eta hizkuntza jokaera anitzak garatu dituzte: bakoitzak bere ingurunera egokitzeko ezagutza garatu du, gizarte antolaketak desberdinak, sinesmenak, balore eta jokamoldeak, komunikatzeko moduak... Kultura eta hizkuntza izan dira historian zehar giza komunitateen identitatearen oinarri.

Munduan aurki dezakegun hizkuntza eta kultura kopurua ezagutzen ditugun espezie biologikoen baino askoz ere txikiagoa den arren, aniztasuna handia da oso.

Hain zuzen, aniztasun hori historian zehar pilatutako ezagutzen altxorra da. Ezagutza horren bidez lortu da, besteak beste, munduko ingurune biologiko anitz eta berezienak mantendu eta modu iraunkorrean ustiatzea. Mende honetan hizkuntzen erdia baino gehiago galtzen badugu, munduan bizia mantentzeko aukerak izugarri gutxituko dira.

7 Iñigo Iñurrategi. *Herriak eta Hizkuntzak: hizkuntzen ekologia*. HUHEZI. Mondragon Unibertsitatea. 2006. (Argitaratu gabea).

Ikuspegi hori kontuan izanda, helburu bera eta bakarra dira giza komunitateen osasuna, bizitasuna, kulturak eta hizkuntzak bultzatu eta zaintzea eta ekosistemak zaindu eta babestea.

Soziolinguistikaren oinarriak

Hizkuntz ekologia sustatzeko, hizkuntzen arteko oreka bultzatzeko, lagungarria da hizkuntzen arteko desberdintasunak zertan oinarritzen diren jakitea. Izan ere, hizkuntzen artean ez dago hoberik edo okerragorik, guztiak berdinak dira baina funtzio desberdinak betetzen dituzte mintzatzen diren hiztun komunitateetan. Hain zuzen, hizkuntza bat baino gehiago hitz egiten den giza taldeetan hizkuntzen arteko gatazkak sortu ohi dira bi hizkuntzetako bat funtzioak galtzen hasten denean, hau da, gizarte horretan zuen garrantzia, prestigioa eta erabilera galtzen hasten denean.

Egoera horiei aurre egiteko —hizkuntzari dagokion prestigioa, erabilera eta funtzioak emateko—, ia ezinbestekoa da hiztunak hiztun oso bihurtzea. Hau da, hizkuntza horretan gizarteko esparru guztietan moldatzeko gai izatea. Baina hori nola lortu? MOTIBAZIOA, EZAGUTZA eta ERABILERA bermatuz.

Hizkuntzen ibilbideak

Hemen eta munduko edozein lekutan familiaren bidez transmititu izan dira hizkuntzak. Haurrari etxean egiten den hizkuntzan hitz egiten zaio normalean, gertueneko inguruan erabiltzen den hizkuntzan, familia barneko hizkuntzan. Horrela, ama hizkuntzaz jabetzea naturalki gertatzen da.

Ikasketa natural horretan, hizkuntza batzuk beste batzuk baino zailagoak balira, haurrei gehiago kostako litzaieke horiek ikastea, baina ez da horrelakorik gertatzen: haurrek denbora bera ematen dute Txinera, Swahilia, Kechwera, Aimara, Maia, Guaranía, Euskara, Ingelesa, Gaztelania edo Portugesa ikasten.

Haurrek bost urte bete bitartean ikasten dute ama hizkuntzaren oinarria: soinuak, hiztegi xumea eta gramatika arauak... Hasierako ikasketa hori era intuitiboan egiten dute, baina hori guztia barneratzeaz gain, pertsona izatearen berri ere hartzen dute, hitzaren bidez beharrak eta nahiak adierazteko gai den gizaki bihurtzen dira. Modu horretan berezko atxikimendua lortzen dute hizkuntzarekiko. Motibazio naturalak bultzatzen ditu horretara, komunikazio tresna garrantzitsua menperatzen hasten baitira.

Horiek dira, hain zuzen, hizkuntzaren lehenengo bi betebeharrak: pentsamen-

duaren euskarri eta komunikazio bide izatea inguru hurbilarekin, familiarekin. Baina, pixkanaka, haurrari espazio berriak zabalduko zaizkio eta horietan entzuten duena bere ama hizkuntza bada, hizkuntzaren erabilera areagotu eta sendotu egingo du. Urte batzuen buruan, gaitasun osoa lortuko du hizkuntza horretan eta edozein esparrutan, funtzio formaletan nahiz besteetan, erabiltzeko gai izango da.⁸

A ibilbidea osatuko du lehendabizi:

A IBILBIDEA

ERABILERA ► EZAGUTZA ► MOTIBAZIOA

Ondoren B ibilbidea egingo du, HIZTUN OSO bihurtuz (AB).

B IBILBIDEA (haurrarena)

MOTIBAZIO KULTURALA ► EZAGUTZA KULTURALA ► ERABILERA KULTURALA

Ama hizkuntza etxean naturalki eta ohar-kabea (A) ikasi du, eta landu egin du (B) —modu akademikoan eta kulturean—, hizkuntza horretan bere gaitasuna kulturalki eta kontzienteki zabaldutik eta osatutik.

8 Juan Carlos Etxegoien *Xamar. Oreakan: Herri eta Hizkuntzen Ekologiaz*. Pamiela Argitaletxea. 2001.

José María Sánchez Carrión. *Un futuro para nuestro pasado: claves de la recuperación del Euskara y teoría social de las lenguas*. 2. edizioa 1991.

Bide horretan hezkuntza jatorrizko hizkuntzan jasotzea ia ezinbestekoa da hiztun oso izatera iristeko. Behin horretara iritsita hiztunak ez du inolako arazorik izango edozein komunikazio egoeratan bere jatorrizko hizkuntzan aritzeko. Hiztun horiek dira, hain zuzen, hizkuntza bere garapenik handienara eramanez gaiturak.


Pertsona helduen kasuan, hizkuntza baten ikasketa ez da naturala izaten. Beste ibilbide bat osatzen du:

B IBILBIDEA (helduarena)

MOTIBAZIOA ► EZAGUTZA ► ERABILERA

Hasteko, hizkuntza hori ikasteko MOTIBAZIOA behar du. Ondoren, hizkuntza EZAGUTU ahala ERABILTZEN hasiko da. Baina ibilbide hori osatzean, A ibilbidea egiten ere has daiteke: erabiltzearen ondorioz gehiago ezagutuko du, eta horrek hizkuntza horrekiko motibazioa indartzen lagunduko dio.

Bi ibilbideak osatzean (BA) HIZTUN OSO bihurtuko da, hau da, hizkuntza funtzio formaletan eta naturaletan erabiltzeko gai izango da. Hiztun horrek, hizkuntza hori bigarren hizkuntza bezala ikasi du, baina AB ibilbidea osatu duen hiztunaren gaitasuna lortzera iritsi da. Ikasteak ez du mugarik eta, BA ibilbidea egin duena, aurrez bere hizkuntzan landutako funtzio kultural guztiak bigarren hizkuntzan lantzera iristen bada, AB motako hiztun bilakatuko da.



B ibilbiderako urratsa egitea ezinbestekoa da hizkuntza berreskuratzeko

MOTIBAZIOA, EZAGUTZA eta ERABILERA dira hizkuntza baten bizitzari eragiten dioten hiru faktoreak. Hasteko hizkuntza ezagutu egin behar da (hiztegia, gramatika, fonetika...), bestela nekez erabil daiteke. Baina motibaziorik gabe, hizkuntza hori ikastea edota mantentzea ezinezkoa da. Esan gabe doa, ikasitako hizkuntzak erabili egin behar direla, erabiltzen ez den hizkuntza ahaztu egiten baitzaio hitzunari.

Horrez gain, hizkuntzak bizirik jarraitu dezan, ia ezinbestekoa da A ibilbidea osatu duten hitzunek ibilbide kulturala osatzea, hau da, urrats bat gehiago eman eta B ibilbidean sartzea. Horrek esan nahi baitu, beren jatorrizko hizkuntzan alfabetatu eta edozein

alorretan hizkuntza horretan komunikatzeko gai izango direla. Horretarako hezkuntza (natur zientziak, matematika, fisika, literatura, gizarte zientziak...) jatorrizko hizkuntzan jasotzea funtsezkoa da. Ez da nahikoa hizkuntzaren ezagutza bermatzea, beste funtzioen ezagutza ere hizkuntza horretan jaso beharko dute hitzun osoak izatera iritsi nahi duten hizkuntz komunitateek.

Euskal Herrian Euskararen berreskuratze bidean emandako urratsek agerian utzi dute hizkuntza gutxitua ikasgai gisa baino landu ez duten hezkuntza ereduetan, ikasle gehienak ez direla hitzun oso izatera iritsi. Aldiz, hezkuntza hizkuntza gutxituan jaso duten ikasle gehienak hitzun oso

Hezkuntza hizkuntza gutxituan jaso duten ikasle gehienak hiztun oso izatera iritsi dira bi hizkuntzetan.

izatera iritsi dira bi hizkuntzetan: Euskaraz eta Gaztelaniaz edo Euskaraz eta Frantsesez.

Hizkuntzaren bizitza likido bat bailitzan irudika daiteke. Likido hori libreki ibiltzen da hiru *ontzi* horien artean eta osoki betetzen ditu hirurak hizkuntza egoera normalizatuan badago. Ontzi batetik bestera pasatzeko, hala ere, maila bat behar du likidoak, bestela ez da ontzien arteko pasabidera iritsiko. Hau da, pertsona batek motibazioa izan dezake Ingelesa ezagutzeko, baina motibazioa eskasa bada, ez da ezagutza bihurtuko (ez da ikasten hasiko). Ikasten hasten bada, berriz, ezagutza maila bat lortu beharko du erabiltzen hasteko.

Hizkuntza biziak

Hizkuntza batek, hizkuntza bizia izan dadin, gizarteko esparru guztietan erabilia izan behar du. Hori horrela den kasuetan, hizkuntzak ibilbide naturala eta kulturala bete ohi ditu eta bere hiztunak hiztun osoak izaten dira.

Bizirik dauden hizkuntzak egoera desberdinetan egon daitezke, baina bizirik jarraitu nahi duten hizkuntzek egoera jakin batean bizitzea lortu

behar dute: AB egoeran. Hau da, bere hiztunek, ibilbide naturala eta kulturala eginez hiztun oso izateko aukera duten egoeran.

Hizkuntzen egoerak:

A egoera: transmisio naturala (fami-liakoa) bakarrik jasotzen duten hizkuntzak. (Kechwa, Maia, Guaranía, Aimara...)

B egoera: maila kulturalan bakarrik transmititzen diren hizkuntzak. (Latina, Sanskritoa...).

AB egoera: ibilbide osoa betez transmititzen diren hizkuntzak: modu naturalean eta kulturalan (Ingelesa, Gaztelania...).

BA egoera: ibilbide osoa bete duten hizkuntzak, baina abiapuntua naturala izan beharrean, kulturala izan dutenak. (Hebreera duela zenbait urte, berreskuratzen hasi zirenean).

Ø egoera: garai batean bizirik egon arren, gaur egun, desagertuta dauden hizkuntzak. (Etruria, Iberia...)

AB egoera da bizirik iraun nahi duen hizkuntza batek erdietsi behar duena. Beraz, modu naturalean eta kulturalan transmititzen den hizkuntz egoerara iristea da helburua. Beste ahalegin guztiak gerturatze soilak baino ez dira izango eta horietara bakarrik iristek ez du hizkuntzaren bizitza bermatuko.

Hiztunen egoerak:


Hizkuntza AB egoeran dagoenean, bere hiztun komunitatearen muinean hiztun osoak daude: AB eta BA hizkuntz ibilbidea egin duten hiztunak. Lehenengoek hizkuntzaren ezagutzarik handiena irudikatzen dute, beren ama hizkuntza (A) da eta landu egin dute kulturalki (B). Bigarrenek, bestalde, motibaziorik handiena irudikatzen dute, hizkuntza ez ezagutzen hiztun oso izatera iritsi direlako. Horiek guztiak dira hizkuntz komunitatearen bihotza, gainerako hiztunen eredu eta erreferentzia. Hiztun horiek hizkuntza eremu berrietara eramane eta garaian garaiko berrikuntzetara moldatzen dute. Mota horretako hiztunik gabe, hizkuntza bat nekez biziko da XXI. mendean.

Horrek ez du esan nahi, ordea, beste hiztunek garrantzirik ez dutenik. Hiztun osoak ez direnak ere hizkuntz komunitatearen parte dira, noski. Alde batetik, hiztun naturalak (A) ditugu. Horien artean dira ama hizkuntza kulturalki sekula landu ez duten pertsonak. Horiek ahozko transmisioan belaunaldiz belaunaldi igorri den aberastasunaren jabe dira eta kultur ibilbidea osatzean hizkuntzak aintzat hartu eta bere egin beharko luke hiztun horien aberastasuna.

Bestetik, kultur bidetik ikasi dutenak (B) ditugu. Horiengan motibazioa eta erabilera sustatuz gero, BA izatera iritsiko dira.

Aipatutakoez gain bada beste hiztun mota bat ere: $\emptyset$. Horiek ez dute hizkun-

Hiztunen diagrama:



tza ezagutzen, baina hiztun posibleak dira. Aintzat hartu behar dira, hizkuntza ikasi edo hizkuntza berreskuratzen lagun dezaketelako.

Hizkuntzaren funtzio nagusiak

Hizkuntzek hainbat funtzio betetzen dituzte mintzatzen diren lurralde edo komunitateetan. Behetik gora izendatuta: identitate edo pertsona funtzioa, familia funtzioa, lan mundukoa, funtzio lokala edo herri mailakoa eta funtzio nazionala. Jatorrizko komunitate edo lurraldetik kanpo, zenbait hizkuntzek beste bi funtzio ere bete ohi dituzte: kultur



edo zibilizazio funtzioa eta nazioar-
teko funtzioa.

Bizirik dagoen edozein hizkuntzak betetzen ditu lehenengo bi funtzioak, hau da, pertsonen barne pentsamenduaren euskarri eta familiaren hizkuntza izatea. Hirugarren esparrua lan munduarena da, lanbidean erabiltzen den hizkuntza berezia edo espezializatua izan baitaiteke. Horren ondorendator herrian egiten dena, maila lokalekoa, inguru hurbilean nagusi den hizkuntza. Eta azkenik, nazio mailan baliatzen dena.

Badira funtzio horiek betetzeaz gain, nazio esparrua gainditzen duten hizkuntzak ere, sortu ziren naziotik kanpo ere ofizialak edo kultur hizkuntzak direnak. Horien artean dira: Gaztelania, Alemana, Ingelesa, Errusiera, Txinera, Frantsesa, Suediera...

Azkenik, nazioartean komunikatzeko erabiltzen diren hizkuntzak daude. Gaur

egun, funtzio hori nagusiki Ingelesak betetzen du.

Normalizatuta dagoen hizkuntzak lehenengo bost funtzioak betetzen ditu osoki, hau da, bizitzako alor guztiak hizkuntza horren bidez egiten ditu: familia, irakas-kuntza, administrazioa, lan mundua, zerbitzuak, justizia sistema, komunikabideak, kultura...

Beraz, hizkuntza batek lehenengo bost funtzioak betetzen ez baditu, beste hizkuntza batek maila horietako bat edo gehiago betetzen dituelako izango da. Ondorioz, alor horietan hizkuntza hori baztertuta egongo da.

Berez, hizkuntza batek ezin du gehien-goaren jatorrizko hizkuntzaren egoera egun batetik bestera aldatu. Baina gehien-goaren hizkuntza horrek pertsona edo familia funtzioak soilik betetzen baditu, eta besteek funtzio nazionala badute (Euskal Herriaren kasuan Gaztelania eta Frantsesak bezala), pixkana-

ka gehiengoaren hizkuntza, hizkuntza gutxitu bihurtzeko bidean jarriko dute. Alegia, funtzio nazionalak betetzen dituen hizkuntza horrek, bestea ordezkatzeko du.

Ordezkapenetik galbidera urrats bat baino ez dago.

Hizkuntzak galbidean

Zergatik eta nola galtzen dira hizkuntzak? Nola berreskuratu daitezke?

Hizkuntza bakoitza edo hiztun komunitate bakoitza eta bere historia bakarra dira, baina galtzeko arriskuan dauden hizkuntza guztiek ibilbide berdintsua egin dute. Berreskuratu direnek ere beste horrenbeste. Ibilbide horiek azalduko dira jarraian, hizkuntzak galbidean jartzen dituzten eragile nagusiak eta berreskuratzeko urrats garrantzitsuenak zein diren adieraziz.

Ordezkapena

Hizkuntza guztiek, beren lurraldean bizitzeko beharrezkoa dute eskalaren lehen-

biziko bost funtzioak beteta izatea. Baina, beste hizkuntza batek funtzio horietariko bat betetzen badu lurralde horretan lehen-dabizikoa itotzeko bidean jartzen du.

Ordezkapena ez da gertatzen behetik gora, alderantziz baizik. Hizkuntza ordezkatzailerak nazio mailako lehenengo funtzioak betetzen ditu: politika, irakaskuntza, administrazioa, osasungintza... Horrela bere hizkuntzaren beharra zabaltzen du.

Hortxe dago gakoa: hizkuntzaren beharra sortzean. Hizkuntza bat oinarriko funtzioetarako behar denean, erabili egiten da eta pixkanaka esparru guztietara hedatzen has daiteke.

Beharrak eraginda hizkuntza hori nazio mailako funtzioetatik beheko funtzioetara hedatzen hasten da, herri hizkuntzan txertatuz eta pixkanaka familiaraino, etxeetaraino eta pertsonenganaino iritsiz. Maila horietaraino iristen denean, arrotza zen hizkuntzak funtzio guztiak betetzen dituen, jatorrizko hizkuntza erabat ordezkatu dagoela esan daiteke. Alegia, gehien-go baten hizkuntza izatetik gutxiengo batena izatera pasatzen da.

• Alde bakarreko elebitasuna=diglosia

Egoera horietan alde bakarreko elebitasuna hasten da gailentzen. Hizkuntza minorizatuko hiztun gehienak elebidun egiten dira. Beste hiztunek ez dute

horretarako beharrik sentitzen, izan ere, jatorriz beraiena ez den hizkuntza ez da funtzio guztietarako behar. Kasu horretan, *elebitasuna* hitza erabiltzen da, baina *diglosia* erabili beharko litza-teke. Izan ere, jatorrizko hitzunik bi hizkuntza dakizki, baina era desberdinean: bata gero eta funtzio gehiago betetzen ditu, besteak, berriz, gelditzen diren apurrak baino ez. Ez daude parekatuta, hortaz, hizkuntza gutxitu-ko hitzunik elebidun diglosiko bihurtzen dira.

Gizarte diglosia gertatzen den kasu guztietan jatorrizko hizkuntza galdu egiten da bere hitzunik egoeraz garaiz jabetzen ez badira.

• Ordezkapen prozesua

Hizkuntza ordezkapena gertatzen den kasuetan, giza talde edo hizkuntz komunitate batean, hasieran hizkuntza bakarra dute, elebakarrak dira jatorrizko hizkuntzan. Gero hitzun batzuek bigarren hizkuntza bat ezagutu behar dutela onartzen da. Ondoren, beharrezkoa den bakarra bertakoa izan arren, bigarrena ezagutzeko beharra zabaldu egiten da. Denborarekin bigarren horrek funtzioak irabazten ditu eta bere erabilera behar-beharrezko bihurtzen da edota hedatu egiten da gizarte maila batzuetan. Pixkanaka, bigarrenak familiakoa ez beste funtzio guztiak betetzen ditu. Bertako hizkuntza, beraz, familiarako eta maila pertsonalerako alboratuta uzten du.

Kanpoko beharrezko bihurtzen da, bertakoa ez. Egoera horrek aurrera egin ahala, bertako hizkuntza baztertu egiten da eta gizarte hori berriro elebakar bihurtzen da, baina kanpotik etorri zaion hizkuntzan.

Ondoren, bi belaunaldi nahikoa izaten dira erabateko ordezkapena gertatzeko: aitona-amonak jatorrizko hizkuntzan elebakarrak; seme-alabak elebidun traketsak; bilobak kanpotik etorri den hizkuntzan elebakarrak.

Horrela azalduta, badirudi hitzunei leporatzen zaiela ordezkapenaren errua, baina benetan zerk behartzen ditu hizkuntza gutxitu baten hitzunik bere ama hizkuntza ez transmititzera? Nola sortzen da egoera hori?

Hauek dira eragile nagusiak⁹:

1. Ama hizkuntza ez erabiltzea haurren hezkuntza formalean (eskolan). Era horretan haurrak zail izango du bere hizkuntza sakonean ikastea (irakurri, idatzi...). Beraz, hizkuntza menperatzailea ikasten da ama-hizkuntzaren ordez, eta bere lekua hartzen du.
2. Komunikabide nagusi, aisialdiko produktu zein kultur proiektuetan hizkuntza menperatzaileen erabilera.

9 UNESCO. *Sharing a world of difference: the earth's linguistic, cultural, and biological diversity*. UNESCO-Terralingua - World Wide Fund for Nature, 2003.

**Aitona-amonak jatorrizko
hizkuntzan elebakarrak;
seme-alabak elebidun
traketsak; bilobak kanpotik
etorri den hizkuntzan
elebakarrak.**

3. Pertsonen urbanizazioak, migrazioek eta abar, sarritan, hiltun komunitateen desintegrazioa eragiten dute. Egoera horretan haurrei zail egiten zaie gurasoen hizkuntza egunero-kotasunean entzun eta erabiltzea. Ondorioz, hizkuntzaren transmisioa galtzen da.
4. Hizkuntza menperatzaileak exijitu eta hizkuntza gutxituak babesteko ordain ekonomiko eta psikologikoak ematen ez dituen lan merkatua.
5. Giza eskubide linguistikoek babesik eza.
6. Eleaniztasunaren aurrean hizkuntza menperatzaileen elebakartasuna gauza normalizat, nahikotzat eta beharrezkotzat jotzen duten ideologiak, bai estatuentzako (nazio bat, hizkuntza bat) zein norbanakoentzako. Hori dela eta, sarritan gurasoek aukeratu egin behar dutela pentsatzen dute: seme-alabek ama hizkuntza ikastea (eta ondorioz, lan merkatuan aukera galtzea), edo hizkuntza menperatzailea ikastea (eta ama hizkuntza baztertzea).

Hizkuntzaren Galera

Ordezkapenaren eraginez jatorrizko hizkuntza gutxitu bihurtzen da eta galbidean sartzen da. Ondoko urratsak eman ohi dira hizkuntzen galera prozesuetan:

• Funtzioen defizita

Estatuko hizkuntzan mintzo den gutxiengo elebakarra erdiguneko igorle moduan txertatzen da. Eurak dira nazioa eta euren da *hizkuntza nazionala*.

• Alde bakarreko elebitasuna

Hizkuntza gutxituak zenbat eta funtzio gutxiago bete bere komunitatean orduan eta gutxiago erabiliko da, edo bere erabilera esparru jakinetara (etxera, lagunartera) mugatuko da. Hizkuntza ofizialeko elebakarrak ugaritzen hasten dira eta ez dira elebiduntzen, ez baita beharrezkoa hizkuntza minorizatua jakitea. Halaber, hizkuntza minorizatuko hiltun gehienak elebidun bihurtzen dira. Hizkuntza ofiziala arlo formalerako erabiltzen dute eta bestea informalerako. Jatorrizko elebakarrak, belaunaldi zaharrenak, desagertzen

doaz, gainera, gutxiagotasun konplexua ere sartzen da tartean.

- **Gutxiagotasun konplexua**

Jatorrizko hizkuntza ez da funtzio nagusietan erabiltzen, eta horretarako gaitasunik ez duelako izango dela pentsatzen dute hiztunek. Prestigioa galtzen du. Hau da, funtzio nagusietarako balio ez badu, gainerakoetan erabiltzeak ere ez du zentzurik jatorrizko hitzun askorentzat. Horrela, hizkuntza ofiziala komunitateko parte izatera pasatzen da.

- **Hizkuntz komunitate desagituratua**

Maila goreneko erabakiak estatuko hizkuntzan iristen dira. Funtzionaritzak eta elite profesionalak hizkuntza minorizatuarekiko motibazio eta ezagutza gutxiago izango du hizkuntz komunitateko gainerakoek baino. Ez da elebakarrik geratzen. Hizkuntza minorizatuko hitzun gehienak elebidunak dira.

- **Diskriminazio legala**

Jatorrizko hizkuntz komunitatea guztiz desagituratuta dago, eta kohesioa galdua dagoenez, periferia izatera pasatzen da. Ez du inolako legitimaterik ez eta babesik ere.


Hizkuntzak berreskuratze bidean

Nola berreskura daitezke galbidean dauden hizkuntzak?

Euskararen eta beste zenbait hizkuntzen esperientzian oinarrituta esan daiteke hizkuntzaren galera bizi duten belaunaldien baitan dagoela joera hori aldatzeko erabakia hartzea eta berreskuratze urratsak ematen hastea. Belaunaldi horrek bere hizkuntzan bizitzeko edo izateko nahia sentitu ohi du eta horri esker gainditzten ditu berreskuratze bidean topatzen dituen trabak.

Hautura tentsioa

Galeraren eraginez, egoera jasangaitza izatera iristen denerako hitzunik fede gutxi izan dezake bere hizkuntzan eta hizkuntz komunitatean. Horrek amore ematera eta bere hizkuntza erabat baztertzea bultzatu ditzake hitzunik. Baina inflexio puntua izan ohi da une hori, kontrako jarrera ere eragin baitezake. Alegia, joera hori hautsi eta bere hizkuntza berreskuratze bidean jartzera bultzatu ditzake hitzunik. Erabakia ordura arteko jarrera



baztertu eta hizkuntza berreskuratzearen aldekoa denean haustura tentsioa gertatzen da. Puntu horretara iristean hizkuntza berreskuratze bidean jartze-ko urratsak ematen hasten da hizkuntz komunitate hori.

Berreskuratzea

Hainbat bidetatik lortu daiteke hizkuntza baten berreskurapena. Jarraian izendatutako puntuak ez dira beti betetzen, baina helburu horietara iristen saiatzea berreskuratze bidean urrats sendoak emateko modua izan daiteke.

a) Hizkuntza komunitatearen konpaktazioa + optimizazioa

Hizkuntz komunitatea berregituratu egiten da: AB eta BA hiztunak biltzen dira hizkuntza prestigioaren eta gaitasun politikoaren ordezkari gisa.

b) Babes legala

Botere linguistikoaren birbanaketa: botere politikoak botere linguistikoari erantzuten dio.

d) Funtzioak berreskuratzea

Hiztun taldeak ugaritu eta talde bakoitzak bere funtzioa ulertu eta bere gain hartzen du.

e) Elebakartasun territoriala

Hizkuntza gutxituak berea eta beste

inorena ez den lurraldea edo habitat linguistikoa behar du bere garapen osoa lortu ahal izateko eta bere hizkuntz komunitatea hizkuntza horretan osa dadin.

f) Autokonfiantza

Hizkuntz komunitate osoak barneratu behar du egoera minorizatuan egon den bere hizkuntzak gaitasun eta ahalmen osoa duela bere behar guztiei erantzuteko.

Beraz, galbidearen aurrean bi aukera ditu hiztun komunitateak: hizkuntza erabat galdu edo berreskuratze bidean jarri. Inflexio puntu horretan aurreko joera eten beharko du hizkuntza berreskuratzen hasteko.

Hautura tentsioak aurretik datorren diglosiarekin amaitzea esan nahi du eta erabaki hori hartu duen belaunaldiak berebiziko garrantzia hartzen du bere hizkuntzaren historian. Izan ere, sustatzaileen belaunaldi horren ezaugarri nagusia da beti ondorengo belaunaldiei begira egiten duela lan. Besteen zain egon gabe bere hizkuntzaren aldeko urratsak ematen hasten da.

Gutxitutako hizkuntza bat berreskuratze-ko lehenengo eta ezinbesteko baldintza hiztunen nahia da, hiztunen benetako borondatea.

Hautura tentsioaren ondoren, zenbait kasutan bi belaunaldi (20-25 urte) behar izan dira hizkuntzaren biziberritzea osatzeko. Hala ere, denbora baino garrantzitsuagoa da hautura eragin duen belaunaldi horrek bere hizkuntzan bizitzeko eta izateko nahia sentitzea.

Izateko nahia edo borondatea

Edozein hizkuntzaren berreskurapenean, bere lurraldean hizkuntzaren ezagutza eta erabilera beharrezko bihurtzea da helburua. Horretarako borondatea eta izateko nahia ezinbestekoak dira. Hala gertatu da hizkuntzaren bat berreskuratzen den kasu guztietan: Albaniera, Txekiera, Armeniera, Lituania, Maltera, Norvegia, Polonia, Hebreera, Errumaniera, Eslovakia, Estonia, Suomiera, Faroea...¹⁰

Gutxitutako hizkuntza bat berreskuratze-ko lehenengo eta ezinbesteko baldintza hiztunen nahia da, hiztunen benetako borondatea. Hizkuntz komunitateak bere nortasuna babestu nahi ez badu, asimilatua izateko prest baldin badago, kontzienteki edo oharkabea, ez dago ezer ere egiterik.

¹⁰ Juan Carlos Etxegoien *Xamar. Oreak: Herri eta Hizkuntzen ekologia*. Pamiela Argitaletxea. 2001.

Izateko nahiak zer bait egitera bultzatzen duen motibazioa sortzen dio hiztun indibidualari. Bere interesak sakrifikatzeko erabakia hartzen du eta bidean aurkituko dituen zailtasun eta traba guztiei aurre egin beharra onartzen du hurrengo belaunaldiei hizkuntza egoera egonkorrean eta osoan utzi ahal izateko. Jarrera hori hiztun kopuru jakin batek hartzen duenean, hizkuntz komunitateak ere izateko borondatea duela esan daiteke. Hori horrela bada, hurrengo urratsa, hiztun horiek biltzea izango litzateke.

Bestalde, Txepetxek dioen bezala, hizkuntz komunitate batek ezin du onartu beste komunitateek bere hizkuntza besteena baino gutxiago dela esatea. Izan ere, edozein garai historikotan komunitate linguistiko baten bizitza bermatzen duena, bere hizkuntza beste edozein giza hizkuntza bezain baliogarria dela sinestea da, konbikzio horrek bakarrik lagunduko du hizkuntzaren garapen linguistiko osoa. Aldiz, garapen linguistiko osorik gabeko hizkuntzak beti egongo


dira galtzeko arriskuan. Hain zuzen, gaur egun, hori da arriskuan dauden munduko hizkuntzen egoera.

Hortaz, hizkuntzaren prestigioa funtsezkoa da bere garapen linguistikorako, baina prestigioa balio sozial bat da, eta balioa ematen dion gizarteari lotuta dago. Alegia, hizkuntz komunitate batek ez badio prestigiorik aitortzen bere hizkuntzari, ezin die eskatu beste hizkuntz komunitateei prestigio hori aitort diezaioten.

Euskararen kasuan, Euskal Herriko lurralde batzuetan Euskara 5. mailan (hizkuntza nazionala) kokatzen da, baina beste zenbait lurraldetan prestigio hori ez da bigarren mailatik (hizkuntza familiarra) gora igotzen, eta zenbait kasutan 1. mailan (azpi-hizkuntza) kokatzen da. Zer esanik ez Euskaraz Euskal Herritik kanpo egiten diren balorazioetan. Baina, Euskarak bere lurralde osoan hizkuntza nazionalaren mailan kokatzea ziurtatu behar du, bestela hizkuntza lokalaren mailara



A HIZKUNTZA



B HIZKUNTZA


(dialektala) jaitsiko da. Eta maila horretan, kultur hizkuntza izatera iristeko bideak itxi egiten zaizkie hizkuntzei; gatazka 3 eta 4 mailetara pasatzen da eta ondoren 2 eta 1 mailetara, ordezkarien prozesu osoa gertatu arte.

Egoera horretatik irteteko berreskuratze bidea abiarazi behar da. Bide horretan garrantzitsua da hizkuntza benetako galtze arriskuan dagoela onartzea, eta bizitzeko oreka lortzeko baliabide guztiak martxan jartzea.

Bihotza, burua, eskuak

Hizkuntza berreskuratzeko baliabideak martxan jartzean gerta liteke urratsak arlo teorikoari oso lotuta eman nahi izatea. Estrategiak, hizkuntza politikak, planak eta abar diseinatzea garrantzitsua da, baina hori guztia martxan jarri ahal izateko beharra edo nahia sentitzen ez bada nekez egingo da aurrera. Zenbaitetan, behar edo nahi horrek ondo diseinatutako planen zain egon gabe, zuzenean eta borondate hutsez lanean hastera bultzatzen ditu hiztunak aurrera egiteko ekin egin behar dela ikusita.

Beraz, gauzak nola egin jakiteak (BURUA) bere garrantzia du, noski, baina horren parekoak dira hizkuntzaren alde lan egitera bultzatzen duen sentimendua (BIHOTZA) eta lanerako jarrera (ESKUAK) ere.



Ahozko hizkuntzatik idatzizkora

Arestian aipatu bezala, berreskuratze bidea hasten duen hizkuntzaren helburua mintzatzen den komunitateko esparru guztietan erabiltzera iristea da. Alegia, funtzio nazionalizat definitu dugun eremua betetzea.

Horrek esan nahi du ahozko erabilera ez ezik, idatzizkoa ere beteko duela. Hau da, etxeko, lagunarteko, kaleko nahiz laneko hizkuntza izateaz gain, irakaskuntzan, literaturan, hedabideetan, administrazio publikoan eta beste hainbat esparru formaletan ere erabiliko da hizkuntza.

Horretarako, behar-beharrezkoa da hizkuntza estandarra, batua. Hau da, hizkuntza horren aldaera desberdinak batuko dituen. Idatzizko forma arauturik gabe idazleak zailtasun handiak izan ditzake idazterakoan, eta irakurlearentzat ere nekeza izan daiteke idazle bakoitzaren arauen arabera idatzitakoa irakurtzea eta ulertzea. Hizkuntza arautuak traba horiek gainditu eta hiztun osoen konpaktazioa bideratzen du.

Euskararen kasuan, hizkuntzaren batasunaren auzia betidanik egon da idazleen ahotan Euskarazko literaturaren historian. Hala ere, estandarizaziorako lehen urratsak XX. mende hasieran eman ziren. Harrez gero, hizkuntza bateratzeko lana Euskaltzaindiak, Euskararen Akademiak, egin du neurri handi batean. Baina egiteko

horretan lagungarri eta askotan bultzatzaile izan ditu hizkuntzaren corpusa modernizatzeko lanean jardun duten erakundeak, zientziaren dibulgazioa, hiztegi gintza, itzulpen gintza, hedabideak eta beste hainbat alor landu dituztenak.

Euskararen batasunerako lehen urratsek kontsentsuaz gain, eztabaida eta polemika handiak eragin zituzten. Hala ere, euskalkien arteko orekan eta bakoitzaren aberastasunean oinarrituta osatu da hizkuntza estandarra. Ondorioz, hasierako trabak gaindituta eta beharrak bultzatuta, euskal gizarteak Euskara batuaren erabilera hedatzen eta onartzen joan da.

Bide horretan, ordea, Euskara batuak ez ditu euskalkiak ordezkatu, ez baitzen horretarako sortu. Hizkuntza estandarra ahozko nahiz idatzizko esparru formaletan erabiltzeko sortu zen: irati-telebistetako emanaldietan, idatzizko prentsan, bikoiztutako filmetan, informazio-argibide orokorretan, seinalizazio-karteletan, ikerkuntzan, irakaskuntzan, literatur gintzan, administrazioan eta abar. Hain formalak ez diren esparruetan, aldiz, euskalkiak erabiltzen dira, batez ere, jatorriz euskaldunak diren eremuetan. Euskalkiak baztertzek ez luke zentzurik izango, hain zuzen, bertan baitago Euskara batua osatu eta aberastuko duen aniztasuna: lexikoa, fraseologia, ñabardurak...

Hortaz, hizkuntza estandarraren ezaugarri nagusi eta ia ezinbestekoak hizkuntzaren tokian tokiko aldaeren arteko oreka, aniztasuna eta aberastasuna direla esan daiteke.





EUSKARAREN ESPERIENTZIA

Gure hizkuntzaren historia


Hizkuntza baten historia bere hitzunek egiten dute, eta hitzun horien historia hizkuntzarena berarena da.

Euskararen historiak, euskaldunon historiak, milaka urte ditu eta bere jatorriari buruzko hainbat teoria daude, baina orain arte inor ez da teoria bat aintzat hartzera ausartu. Ondorioz, gaur egun, Euskararen jatorriak misterio izaten jarraitzen du.

Hala ere, guztiak bat datoz Euskara Europako hizkuntzarik zaharrene-takoa dela esatean. Bera da, hain zuzen, antzinako garaietatik Europan bizirik jarraitzen duen hizkuntza bakarrenetarikoa.

Euskaldunok Euskaraz mintzo den hizkuntz komunitatea osatzen dugu. Hitzak berak dioen bezala, euskaldunak Euskara-dunak gara. Egun, hizkuntz

EUSKAL HERRIA



komunitate bat gehiago gara Europako beste guztien artean. Europako hegomendebaldeko lurretan bizi gara. Euskararen lurralde osoak 20.664 km²-ko azalera du eta, gaur egun, bi estaturen artean banatuta dago: espainola eta frantsesa.

Espainiako Estatuaren barruan daude Euskal Autonomia Erkidegoa (2 milioi inguru biztanle) eta Nafarroa (600.000 inguru biztanle). Ipar Euskal Herria (260.000 inguru biztanle), berriz, Frantziako Estatuaren barruan dago eta Pirinio Atlantikoen Departamentuaren parte da, ez du departamentu propioirik.

Dena dela, egitura politiko horiek sortu aurretik ere Euskararen herria Pirinio mendikatearen bi aldeetan bizi zen, gaur egungoa baino eremu zabalgago hartuz.

Indoeuroparrak mendebaldeko Europa-ira iritsi ziren garaian, duela 3.000 urte inguru, Euskaraz mintzo ziren Iberiar penintsulako ipar-ekialdean eta Frantziako hego mendebaldean.

Aurretik, ez dakigu noiztik zegoen Euskaraz mintzatzen zen jendea lurralde horietan, baina gure kulturaren oinarritzko ideia eta sinesmen asko, gure

kosmogonia, neolitoan —K.a. 3.500 -2.000 urteen artean— finkatu zela ondorioztatu dute ikerlariak hizkuntzan oinarrituta.

Antzinatean, hizkuntza indoeuropar nagusiek munduan hedatzeko joera izan dute. Euskarak, berriz, espazioan hedatzeko joera beharrean, denboran luzatzeko joera izan du eta horregatik jarraitzen du bizirik pronostiko guztien kontra. Horretan giltzarri izan da Euskaraz mintzo den hiztun komunitateak beste kulturen eragina hartzeko eta bidean aurrera egiteko, hau da, aldatzeko izan duen jarrera.

Euskarak, beraz, bizirik jarraitzen du baina ez duela milaka urte bezala; ez itxuraz, ez hedaduraz. Izan ere, erroak mantendu arren, Euskararen bilakae-rak hainbat auzo hizkuntzen eragina izan du. Hedadurari dagokionez, berriz, zenbait eremutan desagertuz joan da erromatarren garaitik hasita. Orduetik, mendez mende Euskararen hedapena murrizten joan da, eta XVIII. mendetik aurrera joera hori areagotu egin da, batez ere, Espainiako eta Frantziako gobernuen hizkuntza politiken eraginez.

Ordezkapen linguistikoaren adibide garbia da Euskarak jasan duena. Hala ere, Euskara ez da inoiz erabat galdu. Garairik zailenetan ere hitzunek etxe barnean mantendu dute bizirik.

Oztopo eta traba guztiei aurre eginez, Euskara berreskuratzeko ahalegin handia

egin da, batez ere XX. mendean. Hala ere, gaur egun, oso desberdina da lurralde bakoitzean bizi duen egoera:

Iparraldean: Frantsesa da estatuko hizkuntza ofizial bakarra.

Hegoaldean: Euskal Autonomia Erkidegoan Euskara ofiziala da gaztelaniarekin batera. Nafarroan, ordea, lurraldearen iparraldean bakarrik da ofiziala gaztelaniarekin batera. Erdialdean eta hegoaldean ez da ofiziala.

• Euskararen ordezkapen prozesua

Arestian aipatu bezala, XVIII. mendean bizkortu zen Euskararen ordezkapen prozesua. Garai hartan Frantziako eta Espainiako monarkiak beren hizkuntzen aldeko politika zorrotzen hasi ziren. Luis XIV.enak Frantziako frantsesa ezartzeko erabili zuen politikaren ondoren, Borbondarren dinastiak politika linguistiko berria ezarri zuen Penintsulan. Mendearren bigarren erdian (1760-1780) politika zapaltzaile hura Penintsula osora eta Ameriketara zabaltzen saiatu ziren. Orduan eman ziren, hain zuzen, Ameriketako hizkuntzen aurka sekula eman diren agindurik gogorrenak.

Hurrengo mendeetan egoerak ez zuen hobera egin euskal hiztunentzat, erdara jakiteko beharra geroz eta handiagoa bihurtu baitzen. Ordura arte, eskola-tugabea edo alfabetatugabea izatea ez

zen arazo izan Euskal Herrian, izan ere, herritarrek beren ahozko kultura zuten eta horrek asetzen zituen haien beharrak. Bizitzeko modu hori, ordea, zeharo aldatu zen XX. mendean. Batetik, mende hasieran haurrak derrigorrez eskolatzeko erabaki sendoa hartu zuen Espainiako gobernuak, eta bestetik, eguneroko bizitza konplikatur joan zenez, alfabetatugabe izatea ezinezko bihurtu zen, alfabetatzen ez zirenek gizartean erabat baztertuta geratzeko arriskua baitzuten.

Alfabetatzea, noski, erdaraz izaten zen. Bai Espainian, bai Frantzian XX. mendea baino lehen hartu ziren eskolak erdara hutsera bihurtzeko neurriak eta XX. mendearen lehen erdira arte bere horretan iraun zuen hezkuntza politika horrek.

Urteak pasa ahala Euskararekiko mesfidantzak bidea egin zuen hiztunen artean eta ohartzerako, belaunaldi berria erabat erdalduntzen hasi zen.

• Diglosiarako bidea

Elebitasuna eta ordezkapenaren arteko muga oso labainkorra da. Lurralde batean elebitasunaren beharra hedatu edo errotu denean, denborarekin bere hizkuntzarekiko nolabaiteko mesfidantza sortzen da bere hizkuntza ofiziala ez den hiztunarengan. Izan ere, hizkuntza horrek ez dio beti balio, gizarte eginkizun gehienetarako beste hizkuntzaren beharra dauka. Horrek

guztiak eta erdaraz egitera behartuta dagoen egoeretan erdara egoki ez erabiltzeagatik jasan behar dituen iseeke gero eta konplexu handiagoa sortzen dute hiztunarengan. Azkenean, hiztunak ondorio garbia ateratzen du: bere hizkuntzak ez du gaurko bizitzarako balio, besteak, aldiz, bai.

XX. mendearen hasierarako, Euskara bizia nekazal, artzain eta arrantzaletan munduan mantentzen zen, batez ere. Hirietan, administrazioarekin eta ikasketekin lotutako jardunak kokatzen ziren gunetan, geroz eta handiagoa zen erdara jakiteko beharra.

Egoera, beraz, ez zen batere itxaropentsua alde guztietatik geroz eta isilduagoa zegoen Euskararentzat. Baina, hain zuzen ere, gune hiritartuenetan sortu ziren hizkuntza gaurkotzeko eta normalizatzeko ideiak eta ekimenak, eta hirietan piztu zen nagusiki Euskararen aldeko mugimendua. Hala izan ez balitz, nekez etengo zen Euskararen galera. Izan ere, ordurako herri txikietan gehienak euskaldunak ziren arren, hizkuntza formala edo goi mailakoa (administrazioarena, medikuen, albaitariena, abokatuena...) erdara zen, eta Euskara beheko mailetara baino ez zen iristen.

Beraz, indartzen ari zen gutxiagotasun konplexu hura gaiztatzeko eta Euskarari zegokion prestigioa emateko ezinbestekoa zen herri gunetan nahiz hirietan Euskara aintzat hartzea eta haren alde egitea.

Euskararen esperientziak berak erakutsi digu jatorrizko hizkuntza (gutxitua) herri txikietara, landa girora mugatzeak haiek gehiago baztertzea bakarrik eragin ohi duela. Herri txikietatik hirietara joan eta jatorrizko hizkuntzan moldatu ahal izateak ematen dio hizkuntzari estatusa eta lekua; eremu batzuetan bakarrik lan eginda zaila baita hizkuntza baten geroa ziurtatzea. Euskararen kasuan ere hala izan zen; baserriek bakarrik ezingo zuketena Euskararen etorkizuna bermatu. Garai hartan baserritarrek nahikoa zuten hirira joateko erdara ikastearekin. Gainera, horrelako kasuetan, hirian jatorrizko hizkuntza erabili daitekeela ikusten den arte ez zaio hizkuntzari baliorik ematen eta baztertzeko jarrera areagotzeko arriskua sor daiteke.

• Hizkuntza eta herri-nortasuna

XIX. mende bukaeran eta XX. mende hasieran, hainbat gerrateren ostean¹¹, herri-nortasunari buruzko gogoetak sortu eta haiekin batera hizkuntza bera herri-nortasuna gordetzeko baliabide gisa hartzen hasi ziren. Ildo horretan, ahalegin kultural eta politiko berriak

sortu ziren eta Euskararen alde gero eta ozenago mintzatzen hasi ziren.

Giro horretan, euskaltzaleak ohartu ziren Euskara indartzeko beharrezkoa zela hizkuntzarentzat baliabide instituzionalak sortzea eta Euskal Herri osoan Euskararen batasun linguistikoa bideratzea. Hegoaldeko eta Iparraldeko indarrak batzea ez zen erraza izan, baina zenbait ekimenek aurrera egin zuten, horien artean 1919an sortu zen Euskaltzaindiak, Euskararen Akademiak.

Hezkuntzari dagokionez, Hegoaldean, Muñoatarrek 1914an sortu zuten Donostian lehenengo ikastola; Koruko Amaren Ikastola, 300 ikasle izatera iritsi zena. Nafarroan Errepublikak urteetan ireki ziren Euskararen Adiskideak Elkar-teak sustatuta. Bizkaian, berriaz, auzo-eskolak eraikitzen hasi ziren. Iparraldean ere antzerako esperientziarik izan zen.

Euskararen aldeko mugimendu hura, ordea, Espainiako Gerra Zibilak (1936-1939) eta Francoren diktadurak (1939-1975) eten zuten. Gerra garaia eta Frankismoa gogorrak izan ziren hura jasan zuten guztientzat, baina euskaldunek hizkuntzaren kontrako jazarpena ere jasan behar izan zuten.

Irabazleen bandoak, Frankoren aldekoek, hizkuntza politikaren helburua garbi zuten: Euskara erabat suntsitzea. Horretarako, hizkuntzaren erabilera debekatu egin zen esparru guztietan: kaleran, elizan, eskoletan, izenetan...

¹¹ Gerra Karlistak. Bigarren Gerra Karlistan galdu ziren azken foruak. Alegia, Euskal Herriko hainbat usadio eta ohitura idatzita batzen zituen araudi-multzoa, zuzenbide edo lege-bildumatza hartzen zena.

Hizkuntz zapalkuntza ez zen Frankismoarekin hasi, baina aspalditik zetorren politika hura azken muturreraino eraman zuten. Frankismoak lortu nahi izan zuen aurreko gobernu espainiarrek partzialki bakarrik lortu zutena: asimilazioa, euskal nortasunaren suntsipena. Horretan hizkuntza izan zuen borrokagai nagusi. Euskaldunei ahotsa ukatu zitzaien eta hizkuntzari ofizialtasuna kendu zitzaion. Politika hark ideologia landua zuen: kolonialismo garaian aldarrikatutako *Nazio bakarra=hizkuntza bakarra* binomioa.

Politika haren baitan hartutako neurri gogorrek eraginda, Hego Euskal Herrian euskaldun elebakarrak guztiz marjinatuta geratu ziren; gizartean ezin ziren erdaldunak edo elebidunak bezala moldatu eta irri errazen jomuga bihurtu ziren. Horrek askotan beren buruaz lotsaraztera eraman zituen. Euskara zela kausa, gutxiagotasun konplexua barneratu zuten askok, eta, aurreko mendeetan gertatu zen bezala, hirietan eta herri handietan hizkuntzaren transmisio naturala hausten hasi zen. Beste behin, Euskara etxe barnera, familiara, baserrira, mugatuta geratu zen eta kontzientziari edota inertzia hutsari esker iraun zuen.

Francoren politika hura Hegoaldean ezarri zen baina Iparraldean ere egoera berdintsua jasan zuten euskaldunek, izan ere, Frantziako gobernuaren politikak ez zuen Euskara aintzat hartzen eta Frantsesa ezarri zuen hizkuntza ofizial bakartzat. Lotsak eta konplexuak

eraginda edota frantsesez mintzatu eta etorkizun hobea izango zutelakoan euskaldun askok pixkanaka Euskara alboratu eta hurrengo belaunaldiei frantsesa bakarrik transmititu zien.

Horrela izan zen *Euskararen Berreskuratze*ari buruzko lehen dokumentalean azaltzen den Ziburuko (Lapurdi) Fermina Jauregiren etxean ere. Ferminaren gurasoak euskaldun elebakarrak ziren. Fermina eta bere senarra euskaldunak ziren eta beren artean ere Euskaraz egiten zuten beti, nahiz eta Frantsesez ere moldatzen ziren. Baina seme-alabak jaio zirenean Frantsesa transmititu zieten nagusiki, hizkuntza hori ondo menperatuz gero etorkizun oparoagoa izango zutela uste baitzuten.

AZKEN MENDEETAKO GALERAREN ITURBURUA ETA ONDORIOAK

- XIX.-XX. mendeko industrializazioa.
- Espainiak eta Frantziak Gaztelania eta Frantsesa hizkuntza bakartzat ezarri zituzten.
- Euskararen prestigio sozial eskasak etxeko transmisioari eragin zion.
- Botere publikoek babestu beharrean jazarpena agindu eta bultzatu zuten.
- Hizkuntzaren eredu estandar eta batua falta zen.
- Euskara hizkuntza gutxitua zen eta etengabeko gutxitze prozesuan zihoan.



Euskararen transmisioaren etenak galera nabarmena eragin zuen: XIX. mendean, esaterako, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako biztanleen %69 euskalduna zen. Handik ehun urtera, berriz, 1981ean, hiru probintzia horietako biztanleen %21,53 baino ez zen euskalduna¹².

Berreskuratzea amets

Euskaldunentzat hizkuntza galbidean ikustea oso traumatikoa izan zen. Baina egoera hain muturrera iristeak galera horren autokontzientzia areagotu eta berreskuratzeko beharraren mezua sendotu egin zuen gizartean. Ondorioz, hizkuntza ezagutzen zutenak gehiago erabiltzen hasi ziren eta hizkuntza ezagutzen ez zutenei ikasteko motibazioa sortu zitzaien.

Hautura tentsioa gertatu zen belaunaldi hartan, eta handik aurrera, pare bat belaunaldi behar izan dira hizkuntza galtzeko arriskutik ateratzeko.

Euskara berreskuratzeko ekimenak izan dira lehenago ere, baina gehienak prozesu

indibidualak izan dira. Aldiz, Espainiako Gerra Zibilaren ondoren egindako lehen ahaleginak prozesu sozialak izan dira, kolektibitate eta multzo handiek abiatutako prozesuak.

Garai hartan harrotasunez heldu zitzaion Euskara berreskuratzeari, euskalgintzari. Belaunaldi hark argi ikusi zuen Euskara dela Euskal Herriaren bihotza eta Euskara bizi den artean Euskal Herria ere biziko dela.

Kontzientzia hark, hizkuntzaren inguruan berrantolatzeko mugimendu soziala piztu zuen hainbat gizarte eremutan: hezkuntzan, hedabideetan, kultura gintzan... Euskaldunen komunitatearen zatirik kontzientziatuena bere burua antolatu eta hizkuntzaren atzeraldiari eta desageratzeko bideari aurre egiteko mugimendu sozial zabala sortzen hasi zen, hizkuntzari eustearen garrantziaz jabetuta zeuden erdaldunen laguntzarekin.

Hizkuntza bat berreskuratzeko lehenengo eta ezinbesteko baldintza hiltzen gogoa eta nahia dira. Hizkuntz komunitateak ez badu bere identitatea, bere izatea babestu nahi eta kontzienteki edo inkontzienteki asimilatua izateko prest baldin badago, ez dago zer eginik.

• Belaunaldi berriaren ezaugarriak:

- GAZTEA. Gerran parte hartu gabea. Ez zuen gerraren traumarik ezta gerra aurreko kultura gintzaren informazio

¹² Ladislao Velasco historialariak 1866-1868 urte bitartean bildutako datuen arabera portzentajeak.

askorik ere. Haustura jarrera zuen; ez zituen gerra aurreko ereduak nahi. Tradizioaren berreskurapena aipatzean, hizkuntza kezka ziren nagusi. Gerora aurrekoarekin hautsi nahi hori baretu egin zen eta ordura arte egingo guztia aztertu eta berreskuratzeko jarrera indartu da.¹³

- **IKASLEAK.** Lehenak seminarioetan ikasiak eta gero Unibertsitatekoak. Hain zuzen, seminarioetan sortu ziren kezka, eta gero handik kanpoko ekin-tzetan edo ikasketa jasoagotan gorpuztu ziren.
- **MILITANTEAK.** Belaunaldi horren lorpen asko legeari aurre eginda erdietsi ziren. Ekimen haiek erakunde frankistetan ez zuten tokirik eta lege-babesik gabe jarri ziren martxan. Elkarte, talde eta ekimen gehienek zenbait elizgizonen babesa izan zuten eta, neurri batean, horri esker egin ahal izan zituzten lehen urratsak. Gero beraien kontura funtzionatzeko gai izan dira. Erlijio-ordena batzuen babesean sortu ziren hegoaldeko aldizkari ia denak, argitaletxe asko eta lehenengo ikastolak. Hortaz, juridikoki, ekonomikoki eta azpiegitura aldetik oso eskas sortu ziren. Euskaltzale gutxi batzuen dirulaguntza gutxi batzuekin eta herritar euskaltzaleen borondate eta lanerako gogoari esker egin zen dena. Oro har, enpresa munduak, industriak eta ekonomiak ez zuten parte hartu euskal

kulturaren garapenean. Erakundeak ere oso berandu (Eusko Jaurlaritzarekin, 80ko hamarkadan) hasi ziren Euskara-ren aldeko ekimen batzuk babesten.

- **HERRIGINTZA.** Helburu horretan oinarritu zen dena. Horren azpian zeuden politika, gizarte arazoak, kultura, hezkuntza, hizkuntza eta literatura. Hasieran, jarduera haiek guztiek bakarra zirela ematen zuen. Lehenengo urteetan dena mugimendu sozial eta politiko beraren barruan sortu zen arren, pixkanaka desberdinduz, elkarrengandik bereiziz eta autonomia hartuz joan zen dena. 1970eko hamarkadan heldu zion bakoitzak bere bide propioari.



13 Joan Mari Torrealdai. *Euskal kultura Gaur: liburuaren mundua*. Jakin.1997



Belaunaldi horren eginkizun historikoa Euskarari prestigioa ematea eta Euskara esparru guztietara zabaltzea izan zen: eskolatik unibertsitatera, literaturatik zientziara, tradizioetik korronte berrietara. Belaunaldi hark Euskal kultura Euskaraz definitu zuen eta erakundeetatik kanpoko organoak sortu zituen, urteetan lege-babesik gabe jardun zutenak. Garai hartan sortu ziren euskalgintzan giltzarri izan diren proiektuak: Ikastolen mugimendua, helduen alfabetatzea eta euskalduntzea, Euskal Kantagintza, bertsolaritza, aldizkariak, argitaletxeak...

Hizkuntza gaurkotzeko bidea



Milaka urte dituen hizkuntza "moderno" edo gaur egungoa izan daiteke? Matematikak edo teknologia Euskaraz landu daitezke? Futbolaz, ekonomiaz, ingurumenaz, politikaz edota nazioarteko gaien inguruan Euskaraz informa daiteke? Fisika kuantikoari buruzko liburu bat Euskaraz egin daiteke?

Duela berrogei urte ia pentsaezina zen hori baina Euskal Herrian errealitate bihurtu da. Hala ere, lurralde bakoitzean hizkuntza gaurkotzeko urratsen erritmoa, baliabideak eta aukerak desberdinak izan

dira, eta ondorioz, Nafarroan, Iparraldean edo EAEn hizkuntzaren egoera eta izaera ez dira berdinak.

Dena dela, gaur egun, Euskara hizkuntza bizia eta moderno da. Zenbaitek uste zuen Euskarak ez zuela matematikak azaltzeko edo medikuntza egiteko balio, ez zela hizkuntza "moderno". Hizkuntzak, ordea, ez dira berez modernoak edo antzinakoak. Hiztunek bihurtzen dituzte hizkuntzak gaur egungo. Hizkuntza eguneratzeko gaitasuna, beraz, ez da hizkuntzarena, hiztunarena baizik.

Bizirik dauden hizkuntzek beren hiztunek bizi duten errealitate egokitzea ia ezinbesteko dute erabilgarri izango badira. Baina horrez gain, hiru elementu garrantzitsu ere behar izaten dituzte: berea eta beste inorena ez den habitat linguistikoa edo lurraldea izatea, hiztun osoak edukitzea eta hizkuntza bateratua, estandarra, izatea.

Hizkuntza bat gara dadin, ezinbesteko zaio lehen bost funtzioak¹⁴ betetzea: identitate edo pertsona funtzioa, familia funtzioa, lan mundukoa, funtzio lokala eta funtzio nazionala. Halaber, berreskuratze bidean garrantzi handikoa izango da erabilera esparruak sortzea: irakaskuntza, hedabideak, corpusaren bateratzea, lan mundua, kultura eta administrazio publikoa. Hedapen horretan, hizkuntzaren aldeko mugimendu sozialek egiteko garrantzitsua betetzen dute, berreskuratze prozesua bizkortzen laguntzen baitute.

14 Ikus: Hizkuntzaren Funtzio Nagusiak atala.

Euskararen kasuan, gure hizkuntzak hiztun osoak izan zitzan, batetik, beharrezkoa izan zen hiztunak hizkuntza horretan alfabetatzen hastea. Helduak —erdaraz alfabetatuak edo alfabetatu gabeak—, Euskaraz alfabetatu behar ziren, eta euskal hiztunak ez zirenak euskaldundu egin behar ziren. Bestetik, haurrek ere Euskarazko hezkuntza jasotzen hasi behar zuten eta helburu hori lortzeko Euskara hutsezko hezkuntzaren aldeko apustua egin zen ikas-toletan, baina hegemonia irekian oinarrituta. Hau da, beste hizkuntzei (Gaztelaniari eta Frantsesari) uko egin gabe Euskararen hegemonia ezarri zen. Ikastolen sortzaileek argi izan dute Euskarazko irakaskuntza bermatu ahal izateko Euskarak hegemonikoa izan behar zuela.

Horretarako, ordea, irakasleak Euskaraz trebatu behar ziren, ikas-material guztia Euskaraz sortu behar zen, eta Euskara ikasgai guztiak emateko prestatu behar zen: matematikak, fisika, kimika, literatura, gizarte zientziak eta abar. Hortaz, Euskara alor horietara egokitu behar izan zen.


Hori guztia egin ahal izateko, behar-beharrezkoa izan zen hizkuntza bate-ratzea, estandarizatzea. Horrek bultzatu zuen Euskara batuaren sorrera, Euskara desberdinak (euskalki) batzetik osatu zen hizkuntza estandarra. Lan hori Euskaltzaindiak (Euskararen Akademiak) egin du hizkuntzaren corpusa modernizatzeke lanean jardun duten erakundeen laguntza eta bultzadarekin.

Esan bezala, hezkuntza, corpusa eta komunikabideak dira hizkuntza bat normalizatzeko lan esparru nagusiak. Baina hori guztia martxan jartzeko, Euskararen berreskuratzeko prozesuan, bederen, funtsezkoak izan ziren herri mailako nahiz nazio mailako mugimendu sozialak, gizarte ekimenari esker sortu baitziren Euskara indarberritu duten elkarte eta erakunde gehienak.

Euskalgintzaren hastapena

Arestian aipatu bezala, bihotza, burua eta eskuak jarri behar dira hizkuntza bat berreskuratzeko. Inplikazio handia eskatzen du eta gauzak nola egin jakiteaz gain, hizkuntzaren alde lan egitera bultzatzen duen sentimendua, ilusioa, eta lanerako jarrera ere garrantzitsuak dira.

Euskarak mugimendu sozialetan izan ditu elementu horiek. Euskalgintzaren hastapenean herritarrak izan ziren Euskara biziberritzeko oinarri-oinarrizkoak ziren elkarte, erakunde, eta era guztietako baliabideak sortu zituztenak. Garai hartan Euskara esparru guztietara zabaltzeko tresnak behar ziren: irakasleak, itzultzaileak, idazleak, hiztegigileak, gramatikagileak...



Sintesira joz, Euskararen berreskuratzea ahalbidetu zuten erakunde eta taldeak 8 arlo zabaletan banatu ditu Garabidek: corputa, irakaskuntza, kultur ekoizpena, hedabideak, herri eta nazio mailako mugimendu sozialak, erakunde publikoak eta lan mundua. Jakin badakigu euskararen garapena ez dela eman modu eta momentu berean alor guztietan. Arlo batzuetan hamarkadak daramatzagu lanean beste hainbatetan hasiberriak gara baina guztiek euskararen sustapena, normalizazioa eta zabalkundea dute helburu.

Alor bakoitza elikatzeko tresna eta baliabideak nola sortu ziren azalduko dugu jarraian¹⁵.

¹⁵ Liburu honetan tresna edo baliabide horiei buruzko azaleko informazioa bildu dugu. Sakonago aztertuko dira hurrengo DVD-liburuetan.

• Euskaltzaindia

Euskara batua sortu eta osatzeko helburuarekin sortu zen 1919an Euskaltzaindia, Euskararen Hizkuntza Akademia. Euskaltzaindiak ezagumendu ofizial osoa du, Espainian Erret Akademia bezala (1976tik), eta Errepublikan Frantsesean Onura publikoko erakunde gisa (1995etik).

Euskaltzaindia Euskara ikertu, arautu eta hiztegira biltzeaz gain, Euskara idatziaren batasuna lortzeko sortu zen. Izan ere, hizkuntza gehienak bezala, Euskarak ere baditu bere aldaerak: 7 euskalki eta hainbat azpieuskalki. Horrek, alde batetik hizkuntza aberastu egiten du, baina baita banatu eta zenbaitetan hiztunen arteko ulermena zaildu ere. Horrez gain, hizkuntza bati nazio mailako funtzioa eman ahal izateko eta bere erabilera esparru guztietan normalizatze-

ko beharrezkoa da hiztun guztiek ulertuko duten hizkuntzaz baliatzea. Helburu hori nola lortu hizkuntza bakoitzaren historiak eta hiztunek baldintzatzen dute, eta Euskarari dago-kionez, batasunaren beharra, batez ere, XX. mendean indartu zen. Batetik, Euskaraz geroz eta material idatzi gehiago zegoen eta hizkuntza estandarrik ez izateak sekulako dispertsioa eragiten zuen idazkeran. Bestetik, hedabideak ere Euskara erabiltzen hasi ziren eta Euskal Herri osoak ulertzeko moduko Euskara eskatzen zuten. Horrez gain, "modernitatea" Euskaraz jaso ahal izateko ere behar-beharrezkoa zen, euskalki desberdinak egoteak zaildu egiten baitzuen Euskararen corpus zientifiko-teknologikoa-ren garapena.

Batasun bidea, eztabaidaz eta haserealdiz betea izan zen hasieran. Eztabaida gogorrenak 'h' letraren erabileraren aldekoen eta kontrakoen artean, eta herri-euskararen alde zeudenen eta Euskara batua, estandarra, nahia-go zutenen artean sortu ziren. Pixkanaka, ordea, eredu bat finkatu da eta normalizazio bidea osatzen joan da. Kritika eta polemika artean Euskara batua izango zenaren oinarriak ezarri zituen Euskaltzaindiak, hau da, irakaskuntzarako, literatur produkziarako eta hedabideentzako diseinatzen den Euskara estandarren oinarriak. Gaur egun, onarpen zabala, ia erabatekoa, dute Euskaltzaindiaren arauak irakaskuntzan, hedabideetan, Administrazioan eta literatur produkzioan.

• UZEI

Euskara unibertsitate-gaietarako eta hizkuntza tekniko-zientifikorako pres-tatzeko helburuarekin sortu zen UZEI (Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea) 1977an. 1979an lehenengo hiztegi teknikoak argitaratu zuen: *Fisika Hiztegia*. Geroztik, beste zenbait jardueren artean, unibertsitaterako nahiz irakaskuntza ertainerako hainbat testuliburu, eta beste hainbat jakintza- eta lanbide-hiztegi kaleratu ditu.

• Elhuyar Fundazioa

Euskara zientziaren eta teknologiaren eremuan garatzeko, sustatzeko eta erabiltzeko helburuarekin sortu zen Elhuyar Kultur Elkartea 1972an. Gero, bere jarduna Euskararen corpusaren eta estatusaren normalizaziora bideratu du. 1974an *Elhuyar* aldizkaria argitaratzen hasi zen, zientzia eta teknologiari buruz osoki Euskaraz idatzitako lehen aldizkaria. 1986an, berri, *Elhuyar Zientzia eta Teknologia* hila-betekaria argitaratzen hasi zen. Horrez gain, Euskarazko hezkuntza-materiala landu eta argitaratzen du, eta irratirako nahiz telebistarako zientzia eta teknologiari buruzko saioak ekoizten ditu.

• Itzultzaile Eskola

1980an sortu zen Donostiako Itzultzaile Eskola izenarekin. Hamar urtean laurehun bat ikasle itzulpengintzara-



ko prestatu ondoren, itzulpengintza ikasketak unibertsitatera bideratu ziren. 1987an, berri, Euskal Itzul-tzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarte (EIZIE) sortu zen Euskaraz lanean ari ziren itzultzaileak, zuzentzaileak eta interpretariak koordinatu eta batzeko.

• Ikastolen mugimendua

Euskararen berreskuratze bidean hezkuntzari dagokionez, funtsezkoa izan zen 1960ko hamarkadan ikastolen mugimenduak hartu zuen indarra Euskara hutsezko hezkuntza sistema bermatu ahal izateko.

Ikastolek zabaldu zuten bide edo eredu berriak ikasleak bi hizkuntzatan hartzun oso bihurtzea ahalbidetu du. Hain zuzen, eredu hori izan da 80ko hamarkadaz geroztik hezkuntza sistema osora zabaltzen joan dena.

Izan ere, hizkuntzari etorkizuna eman nahi bazaio, ezinbestekoa da haurrak hizkuntza horretan hezte eta biziartzea. Euskal Herrian Euskara sustatu nahi izan dutenek oso garbi izan dute hori, eta Espainiako Gerra baino lehen egin bezala, gerra ostean ere Euskarazko hezkuntzaren aldeko apustua egin zuten. Hasieran banaka batzuk hasi zuten ahalegina, azken 40 urteetan Euskararen inguruan eratu den mugimendurik zabalena eta sendoena izatera iritsi da.

Gerraosteko ikastolak klandestinitatean sortu ziren. Emakume bat izan zen, Elbira Zipitria¹⁶, horretan aitzindari. Gerra ostean Iparraldetik Donostiara itzuli eta, 1943an hasi zen Zipitria ezagunen etxeetan haur batzuei Euskara hutsean irakasten. Ikastolak ez ziren, ordea, Euskara hutsean irakasteagatik bakarrik bereizten; Zipitriak oso pedagogia berritzailea erabili zuen.

Hasieran ikastola gutxi batzuk sortu ziren arren, hirurogeigarren hamarkadaren erdialdetik aurrera ia herri guztietan hasi ziren ikastolak martxan jartzten, nahiz eta legez kanpo eta oso baliabide urriekin izan. 1960tik 1970era bitartean 71 zentro berri ireki ziren. Gehienak herri elebidunetan eta hirietan zeuden. Ikastolen izaera, beraz, urbanoa izan zen.

Orduko agintariek ezin izan zuten mugimendu hura geldiarazi. Geroz eta eskari handiagoa zegoen gurasoen aldetik, geroz eta ikasle gehiago biltzen ziren ikastoletan eta ezin zuten klandestinitatean jarraitu. Hori zela eta, konkordatuaz baliatuz Elizaren eskola bezala legeztatu ziren gehienak. Hala ere, gurasoen, irakasleen eta mugimendu haren aldeko euskaltzaleen borondateari eta lanari esker gainditu zituzten oztopo guztiak. Dirua biltzeko bonoak saldu, festetan ogitartekoak

16 Elbira Zipitria: irakasle gipuzkoarra. Gerra ostean ikastolen sorreran lehen urratsak eman zituen emakume euskaltzalea.

1960tik 1970era bitartean 71 ikastola berri ireki ziren. Gehienak herri lebidunetan eta hirietan zeuden.

saldu, txabol-soto edo txosnetan lan egin... Ikastola bakoitzaren funtzio-namenduan ere gurasoen inplikazioa erabatekoa zen. Askok eta askok miraritzat jotzen dute mugimendu harekin gertatu zena.

Gaur egun, ikastolek herri ekimenak bultzatutako ikastetxeak izaten jarraitzen dute eta Euskarazko hezkuntza eredua (D eredua) eskaintzen dute. Hezkuntza sisteman onartuak daude eta sare publikoan ez dauden arren, diru-laguntza publikoa jasotzen dute.

• Irakasle Eskola

Euskarazko irakaskuntzak aurrera egitekotan irakasle tituludunak behar zituela ikusita, 1976an Hezibide Elkartek Irakasle Eskola sortu zuen Eskoriatzan (Gipuzkoa); elkarte horrek batzen zituen Debagoieneko hezkuntza kooperatibak. Irakasle Eskola, hasieran, ofizialtasunik gabe hasi zen lanean, Salamancako Unibertsitate Pontifizioaren gela moduan, baina 1978an Espainiako Hezkuntza Ministerioak ofizialki onartu zuen. Gaur egun, 1997az geroztik, Mondragon Unibertsitatearen parte da, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultate (HUHEZI) gisa.

• Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

Euskal Unibertsitate nazional, herritar eta euskalduna lortzeko helburuarekin sortu zen UEU (Udako Euskal Unibertsitatea) 1970eko hamarkadan. Urte osoko unibertsitate ikasketarik eta titulaziorik eskaintzen ez duen arren, urtero udako ikastaroak antolatzen ditu Iparraldean eta Hegoaldean.

Irakasle eta ikasle gazteen ekimenez sortu zen UEU. Hainbat unibertsitate-tan Gaztelaniaz ikasten eta irakasten zebiltzan hainbat euskaltzale udan 15 egunez elkartzen hasi ziren, unibertsitate mailako gaiak landuz ikastaro batzuk antolatu eta lehen aldiz Euskaraz eskaintzeko. Gazte talde hark abian jarritako egitasmo hari segida emanez ondorengo urteetan sortu ziren Euskararen teknifikazioa garatu duten elkarte eta erakunde gehienak.

Gaur egun, EAEko Unibertsitate pribatu nahiz publikoetan ikasketak Euskaraz nahiz Gaztelaniaz egiteko aukera dago. Nafarroako eta Iparraldeko unibertsitateetan, ordea, egoera bestelakoa da; Euskararen presentzia ia hutsaren hurrena da ikasketa gehienetan.

• Helduen alfabetatzea eta euskalduntzea

1966an herrigintza eta euskalgintza uztartuz hasi ziren lehenengo alfabetatze saioak. Mugimendu haren susta-

tzaile nagusia Rikardo Arregi¹⁷ izan zen. Herri ekimena izan zen; alegia, mugimendu eta ekimen sozialek ereindakotik sortua, ez erakunde publikoek sustatutakoa. Berehala, ordura arte erdara hutsean alfabetatu ziren euskaldunak eta erdaldunak Euskaraz alfabetatzen hasi ziren eta ia herri guztietan sortu ziren euskal eskolak, gau eskolak, Euskara taldeak... 1968an AEK (Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundea) sortu zen Euskaltzaindiaren babesean eta 1974tik aurrera erakunde autonomo bihurtu zen. Euskal Herri osoko gau-eskolak eta euskaltegi gehienak koordinatzen zituen. Gaur egun, AEK-z gain, badira Udal Euskaltegiak, IKA euskaltegiak (Nafarroan eta Araban), eta beste hainbat. Baina AEK da Euskal Herri osoan hedatuta dagoen bakarra.

17 Rikardo Arregi: euskal idazle, kazetari eta kultur eragilea (Andoain, 1942-Mendaro, 1969).

• Euskal Kantagintza Berria

Nemesio Etxaniz apaiza eta Michel Labe-gerie izan ziren Euskarazko diskoak argitaratzen lehenak, baina Ez Dok Amairu izeneko mugimendu kulturala izan zen gazteak euskal kantagintzara gehien erakarri zituena. Franco bizi zela eta haren diktaduraren eragina oso nabarmena zen garaian sortu zen Ez Dok Amairu.

Taldearen izena Jorge Oteiza eskultoreak proposatu zuen. Hura ere euskal kultura eta artea abangoardiara ekartzearen alde agertu zen sutsuki. Garai hartan, Oteizaren lanek eta ideiak eragin handia izan zuten bereziki gazteen artean, "euskal kultura" deitzen zenaren mugak ireki eta zabaldu zituelako.

Euskara eta euskal kultura oso zaharrak izanagatik abangoardian (artistikoan,



"Ez Dok Amairu" mugimendua osatu zuen gazte taldea.

musikalean) egon zitezkeela pentsatzeak gauzak aldatu zituen. Kontua ez zen bigarren mailako musika folkloriko bat egitea, edo bigarren mailako arte edo artisautza bat egitea, baizik eta gure izaera zahar hura artearen, musikaren edota edozer adierazpideren puntako abangoardian egon zitezkeela pentsatzea. Ildo horretan Oteizak kobazuloetako artearen eta abangoardia modernoaren arteko lotura egin zuen. Baina horren guztiaren atzean zegoen sentimendua da garrantzitsuena: gure izaerak asko balio du, bai gaur egunerako, bai etorkizunerako, bai abangoardia izateko.

Batez ere, kantariak eta idazleak Euskarak ordura arte zuen esparrua gainditu nahi zuten. Horretarako Kataluniako Nova Cançó mugimendua izan zuten eredu.

Euskal Herriko artista-talde abangoardista hark Espainiako Gerra Zibilaren ondoko folklorismoari aurre eginez, adierazpen artistiko berriak sortzea zuen helburu; Euskal Herriko mugimendua politiko, sozial eta kultural errebindikatzaile berrien ildotik, protesta eta askatasun-mezu sozial eta politikoa azaltzen zuen euskal musika eta abesti berriak lantzeari ekin zion batik bat.

Hasierako helburua euskal musika tradizionala zabaltzea eta gaurkotzea zen, baina gehiago ere egin zuten: kantuarekin batera, poesia, dantza eta antzerkia erabili zuten, kantaldia baino ikuskizuna osatuz.

Kontrako kritika ere hasieratik izan zuten bide lagun, baina belaunaldi gazte euskaltzaleen artean sekulako arrakasta eta harrera izan zuen.

Ginena eta izan nahi genuenaren ahalegina sinbolizatu zuen kultur mugimendua hark.

• Bertsolaritza

Kantatuz, errimatuz eta neurtuz burutzen den berbaldia da bertsolaritza¹⁸. Euskarazko ahozko literaturan antzinetatik datorren eta gaur egun bizi-bizirik dagoen generoa da. Bertsolaritza euskal gizartean gertatu diren aldaketetara egokitzen jakin dute bertsolariak. Garai batean sagardotegi-giroan, lagunarte txikietan jarduten zuten bertsolariak, baina XX. mendean kalera irten eta garaiko moldeetara egokitzen hasi ziren.

1935etik 1968ra bitartean bertsolaritza modernoaren aroa izan zen, sagardotegietatik atera eta kaletartzen hasi zen. Hala ere, Frankismoaren garairik latzenetan zentsurapean egin zuen aurrera. 1960an jokatu zen gerraosteko lehenengo Euskal Herriko Txapelketa Nagusia eta handik aurrera indartzen hasi zen. 1977. urtetik aurrera, jaialdiek gora egin zuten eta Bertso Eskoletako lehen belaunaldiak plazaratzen hasi ziren. Heda-bideak bertsolaritzari lekua egiten hasi

18 Joxerra Gartzia, Andoni Egaña, Jon Sarasua. *Bat-bateko bertsolaritza: gakoak eta azterbideak*. Bertsozale Kultur Elkarte. 2001.

ziren eta inoiz baino zale gehiago sortu zituen. 80ko hamarkadan Bertso Eskolak ugaritu ziren eta emakumeak lehen aldiz irten ziren plazara, gizonezkoz betetako oholtza gainera. Hamarkada hartan sortu zen Euskal Herriko Bertsozale Elkarte, bertsolaritza sustatzeko helburuarekin.

• Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka

Frankismoaren diktadurapeko urteetan Euskal Herrian zegoen liburugintza eta diskogintzaren ekoizpena ezagutze-
ra emateko helburuarekin sortu zen Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka 1965ean. Helburu horrez gain, euskalgintzan zebiltzan sektoreen topaleku ere izan nahi zuen azokak.

Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan saltzen diren liburuak Euskaraz edo erdaraz idatzita egon daitezke, baina erdarazkoetan, beharrezkoa da euskal gaiez jardutea. Diskoen arloan, berriz, Euskara da onartzen den hizkuntza bakarra, eta musika hutsez osatutako diskoetan euskal musikarien lanek bakarrik izaten dute lekua Azokan.

• Hedabideak

Euskarazko lehenengo urratsak prentsa idatzian eman ziren. Gerra ostean 50eko hamarkada inguruan hasi ziren Euskara hutsezko aldizkariak argitaratzen, Seminarioetan lehendabizi eta Unibertsitate giroan



gero. Gaur egun, orduan sortutako *Jakin* kultur aldizkariak eta *Argia* (lehenago *Zeruko Argia*) astekariak jarraitzen dute lanean.

Bestalde, ahozko Euskara erabiltzen lehena irratia izan zen. Hedabide honetan ere 50eko hamarkadan elizarenak ziren irratia hasi ziren saio batzuk Euskaraz egiten; beti ere erlijio, kirol, edo kultura alorreko gaiak jorratuz. Bestelako gaiak 60ko hamarkadan hasi ziren lantzen eta *Loiolako Herri Irratia* eredu bihurtu zen gainerakoentzat. Hura ahalegindu zen Euskara baserri girotik atera eta hiri-hizkuntzara moldatzen. Iparraldean 1963an egin ziren Euskarazko lehen saioak Lapurdiko Côte Basque irratian.

1976an Euskara hutsezko irratia aldarrikatuz 24 orduak Euskaraz jaialdia ospatu zen Donostiako eta Loiolako Herri Irratiak antolatuta.

80ko hamarkadan sortu ziren Baionako *Gure Irratia*, *Euskadi Irratia* —Euskal Irrati Telebista (EITB) publikoaren barruan—, *Irulegiko Irratia* eta *Xibero-roko Botza*. Haiekin hasi zen Euskara hutsezko irratiaren ibilbidea. Gaur egun, EITBren barruan, *Euskadi Irratiaz* gain, Euskara hutsezkoa da gazteei zuzendutako *Gaztea* irratia eta elebiduna da *EITB Musika* irratia.

Telebistari dagokionez, berriaz, Euskal Irrati Telebista (EITB) erakundea 1981ean sortu zuen Eusko Jaurlaritzak eta 1983an hasi zen Euskara hutsean eta modu normalizatuan emititzen. Gaur egun, EITBren barruan Euskara hutsean emititzen dute *ETB1* kateak eta gazteei zuzendutako *ETB3* kateak. *ETB2*-k dena Gaztelaniaz egiten du. Europarako *ETBSat* katea, berriaz, elebiduna da, baita Ameriketara zuzendutako *Canal Vasco* ere.

Horrez gain, 80ko hamarkadaz geroztik, Euskara Elkarteen Federazioaren (Topagunearen) babesean eta tokian tokiko Euskara Elkarteen ekimenez, Euskarazko hainbat herri-telebista eta herri-aldizkari sortu dira. Gaur egun, 33 herri aldizkari argitaratzen dira eta guztira 260.000 inguru irakurle dituzte. Horrez gain, 6 irrati eta 7 telebista kate lokal ere badaude.

**Baina nik, hizkuntza larreakoa,
nahi haunat ere noranahikoa.**

Xabier Lizardi

● *Euskaldunon Egunkaria*

XX. mendeko herri ekimenik garrantzitsuenetakoa Euskara hutsezko eta Euskal Herri osorako egunkari bat sortzea izan zen: *Euskaldunon Egunkaria*. Argia astekariko kazetarien ekimenez sortu zen 1990ean. Euskal komunitatearen bilgune eta lokarri izatera iritsi zen, 2003ko otsailaren 20an, Espainiako Auzitegi Nazionalaren aginduz itxi egin zuten arte, bertako zenbait kide atxilotuz. Euskaltzaleek beren kontrako erasotzat jo zuten eta inoiz baino jende gehiago bildu zen hura salatzeke manifestazio eta protesta ekitaldietan. Herri mugimendu itzela eragin zuen eta berehala hasi ziren herriz herri nahiz Euskal Herri mailan Euskarazko egunkari berri bat sortzeko ahaleginak. Sorrerako garaietan bezala, orduan ere *Egunkariaren* aldeko taldeak sortu ziren, ekitaldiak antolatzeke, bonoak saltzeko, bazkideak lortzeko... bitartean, kazetariak *Egunero* izeneko egunkari baten bidez jarraitu zuten etekin gabe egunero informazioa Euskaraz ematen eta handik urtebetera argitaratu zen *Berria* egunkariaren lehen alea. Beste behin ere, herri ekimenari esker lortu zen Euskara hutsezko egunkari berria martxan jartzea.

Hain zuzen, Euskaldunon Egunkaria itxi eta bi urtera sortu zen Euskarazko Komunikazio Taldea (EKT) Euskarazko hedabideak sortu eta sustatzeko helburuarekin. *Berria* egunkaria, www.berria.info ataria eta tokian tokiko *Hitza* izeneko egunkariak dira, besteak beste, orain arte EKTren baitan biltzen diren egitasmo nagusiak.

• Euskaldunak hizkuntzaren alde

Euskararen aldeko olatua indartzen joan ahala, hizkuntzaren aldeko kontzientziak sekula baino jendetza handiagoak biltzen zituen. Horretan mugarri izan zen 1978an Euskaltzaindiak bultzatutako Bai Euskarari kanpaina. Bilboko San Mames futbol zelaian ospatu zen kanpainaren amaierako ekitaldia eta 40.000 lagun bildu ziren. Handik 20 urtera, lelo berarekin baina Kontseilua erakundeak burutu zuen kanpainak 120.000 euskaltzale bildu zituen, Euskal Herri osoko 5 futbol estadio betez.

Euskaldunak biltzen dituen beste jaialdi erraldoiak ikastolek urtero antolatzen dituztenak dira. Lehenengoa Gipuzkoan ospatu zen 1977an, Gipuzkoako ikastolen alde dirua biltzeko. Kilometroak izena eman zitzaion. 1978an sortu zen Ibilaldia Bizkaian, 1980an Araba Euskaraz Araban, 1981ean Nafarroa Oinez Nafarroan, eta 1984an hasi ziren Herri Urrats jaia antolatzen Iparraldean. Duela pare bat hamar-

kadaz geroztik, Euskal Eskola Publikoak ere urtero ospatzen du euskal eskolen aldeko jaia.

AEK-k ere Euskararen aldeko beste ekimen erraldoi bat antolatzen du bi urtean behin, 1980ko hamarkadaz geroztik: Korrika. Herriz herri, hamar bat egunez eta 24 orduz geratu ere egin gabe korrika zeharkatzen da Euskal Herri osoa. Jendea herri guztietan eta errepede bazter guztietan zain egoten da, egunez nahiz gauez, Korrikarekin bat egin eta lasterka egiteko. Norbanakoez, elkarteek, enpresek eta erakunde pribatu nahiz publikoek kilometroak "erosteko" (ordaintzeko) aukera dute, eta horrela biltzen du Koordinakundeak euskaltegiak finantzatzeko diruaren parte bat.

• Euskara Elkarteak

Herri mailan, hamarkada hartan sortu ziren herrietako lehenengo Euskara Elkarteak. Haien helburua Euskararen



Mikel Laboa (1934–2008) abeslaria 1989an Korrikaren 6. edizioan eskuan lekukoa duela.

Txepetxen teorizazioa praktikara eramateko beste egitasmo berritzaile eta garrantzitsuak Kafe Antzokiak izan dira.

normalizazioa bultzatzea zen, Euskara une eta herriko eremu guztietan hizkuntza nagusi izan zedin. Horretan AED (Arrasate Euskaldun Dezagun) izan zen aitzindaria. Euskararen alde jendea biltzeko, lan egiteko —kontzientziazio eta motibazio-lana—, erabilera eremuak sortzeko eta Euskara biziberritzeko neurriak eskatzeko herri mugimendu gisa sortu zen. Baina horrez gain, erakundee-tan eragiteko asmoa ere bazuen. AEDk, batez ere, Udalarekiko harremanari eman zion lehentasuna eta bi gauza eskatu zizkion: Euskararen Udal Batzordea eta Euskararen Gabinete Teknikoa sortzea.

AED sortu zenetik 92 Euskara Elkarte eratu dira eta guztiak Topagunea izeneko Euskara Elkartearen Federazioko kide dira. Topaguneak Euskara Elkar-teak sustatu eta beraientzako zerbitzuak antolatzen ditu: Euskaraz bizitzeko egitasmoak prestatu eta garatzen dituzte, euskaldunak elkartu, euskaldun berrientzako erabilera programak egin, hedabideen bitartez herri eta eskualdeko informazioa landu, haur eta gazteei aisialdirako Euskarazko aukerak eskaini, Euskarazko kultur jarduerak antolatu, herrietako elkarte eta erakundeekin hizkuntzaren erabilera sustatzeko hitzarmenak sinatu... Topagunea bera 1996an sortu zen eta gaur egun esparru desber-

dinak kudeatzen ditu: Euskara hutsezko hedabide lokalak, erakundeen euskalduntzea, kultura gintza, haurrak, gazteak eta euskaldun berriak.

AEDren ondoren sortutako Euskara Elkarte gehienak 1990eko hamarkadan eratu ziren. Hain zuzen, garai hartan Arrasateko elkarteak José María Sánchez Carrión *Txepetxen* teorizazioa¹⁹ gizarteratzeko ahalegin berezia egin zuen *Adorez ta Atseginez* izeneko mintegien bidez. Mintegi haietan parte hartu zuten euskaltzale asko izan ziren hamarkada hartan tokian tokiko Euskara Elkarteak sortzaile edo bultzatzaile: Lasarte-Oriako Ttakun, Donostiako Bagera, Tolosako Galtzaundi...

Txepetxen teorizazioa praktikara eramateko beste egitasmo berritzaile eta garrantzitsuak Kafe Antzokiak izan dira. Lehenengoa 1995ean ireki zen Bilbon (Bizkaia) Zenbat Gara elkarteak sustatuta. Hiri horretan bizi ziren milaka euskaldun euren hizkuntza naturaltasunez erabiltzeko topagunea eskaintzea zen ekimen horren helburua. Alegia, euskaldun-zahar, euskaldun-berri eta ikasleek bat egin eta hizkuntza komunitatea trinkotuko zuen erreferentzia gunea eraikitzea. Bilboko Kafe Antzokiaz gain, Euskara hutsez emititzen duen Bilbo Hiria irratia, Gabriel Aresti Euskaltegia eta Gara argitaletxea biltzen ditu Zenbat Gara elkarteak bere baitan. 2002an, berri,

19 José María Sánchez Carrión. *Un futuro para nuestro pasado: claves de la recuperación del Euskara y teoría social de las lenguas*. 2. edizioa 1991.

Ondarroako Kafe Antzokiaren sorreran hartu zuen parte elkarteak. Ildo beretik sortu zen 2006an Durangoko (Bizkaia) Plateruena Kafe Antzokia bertako Berbaro Elkartearen ekimenez eta 2007an sortutakoa da Donostiako Doka Kafe Antzokia.

• Euskal Herrian Euskaraz

Euskal Herri euskalduna lortzeko helburuarekin eratu zen Euskal Herrian Euskaraz (EHE) elkarteak 1979an. Sorreratik izaera errebindikatzailera izan du eta bere helburu nagusia Euskaraz biziko den herria, elebakarra, baina herritar eleanitzez osatua egongo dena eraikitzea da. Izan ere, elebitasun egoerak iragankorria izan behar duela aldarrikatzen du elkarte horrek.

• Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua

1980ko hamarkadan Euskara sustatzeko eta normalizatzeko hainbat elkarte eta erakunde sortu ziren. Hizkuntza normalizatzeko bidean lan garrantzitsua egin dute guztiek, eta bakoitzak bere esparruan egindako lanak Euskarari bere osotasunean egin dio mesede.

Hala ere, hasierako urteetako normalizazio ahalegina pixkanaka apaltzen joan zen. Elkarte eta erakunde guztiek Euskararen alde lan egitea zuten helburu, baina bakoitza bere kabuz ari

zen lanean. Horrek prozesua moteldu zezakeela ikusita, alor desberdinetan ziharduten euskaltzaleak bildu eta gai horren inguruan hausnartzeko Euskararen Unibertsoa izeneko jardunaldiak egin zituzten. Euskalgintzak bere buruaren balantzeari egin eta Euskarari behin betiko bultzada emateko Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua eratzea erabaki zen jardunaldi haietan.

Kontseiluaren lehen egitekoa alderdi politikoen atxikimendua lortzea eta Euskal Herriko gizarte-eragileekin *Bai Euskarari Akordioa* sinatzea izan zen. Ondoren, lan munduan Euskara sustatzeko Bai Euskarari Ziurtagiria eta Hizkuntza Eskubideen Behatokia sortu eta beste hainbat egitasmo abiarazi ditu. Bere eginkizun nagusia Euskararen normalizazio prozesua areagotzea da eta horretarako bi jardunbide nagusi lantzen ditu: euskalgintzako erakundearen artean kohesioa bultzatzea eta indarrak artikulatzea, batetik, eta gizarte eragileak, indar ekonomikoak eta alderdi politikoak hizkuntza normalizazio proiektuetan inplikaraztea, bestetik.

• Lan mundua

Lan munduan Euskararen erabilera sustatzeko lehen ekimenak 80ko hamarkadan sortu ziren. Horretan ere Arrasate izan zen aitzindari, 1986an eman baitziren bertan Euskalan izango zenaren lehen urratsak. AEDren baitan

sortutako herri ekimena izan zen, baina lehen urrats haietan Arrasateko ia 100 enpresak Euskararen Erabilera Areagotzeko Hitzarmena sinatzea lortu zuen. Hurrengo urtean, *Euskeraz dakixenak ein deixela* kanpainaren bidez eman zen ezagutzera elkarteak.

1991n Elhuyar Fundazioaren baitan Elhuyar Aholkularitza sortu zen. Bere jarduna Euskara lan munduan txeratzeko zerbitzuak eskaintzera zuzentzen da. Gaur egun, hainbat enpresa, herri-erakunde eta bestelako entitateetan hizkuntza normalizatzeko lanean dihardu.

Helburu berarekin sortu zen 1997an EMUN kooperatiba. Honek ere, lan mundua euskaraz garatzeko hizkuntza zerbitzuak eskaintzen ditu. Oro har, bai EMUNek, bai Elhuyar Aholkularitzak euskararen erabilera sustatzeko tokian tokira egokitutako egitasmoak, hizkuntza aholkularitza zerbitzuak eta itzulpen zerbitzuak eskaintzen dituzte.

• Erakunde publikoak

Euskararen normalizazio prozesuan, Euskal Autonomia Erkidegoan hartutako neurri garrantzizkoenetako bat Euskararen Erabilera Arautzeko 10/1982 Oinarritzko Legea izan da. Lege horrek hizkuntza politikako ekimenak garatzeko bidea zabaltu zuen, gizarteko eremu giltzarrietan Euskararen ezagutza eta erabilera berreskuratzeko Euskarari erakundeen babesa eskainiz.

Lege horren ondoren hasi ziren EAEn Unibertsitatea, hezkuntza eta administrazio publikoa euskalduntzen. 1983an, esaterako, Administrazio Publikoan Euskararen erabilera ezartzeko, normalizatzeko eta administrazio hizkera finkatzeko erakundea sortu zuen Eusko Jaurlaritzak: IVAP.

Udalerri mailan, udaletan Euskararen Batzordea edo Euskara Departamendua eta hori bideratzeko Euskara teknikarien lanpostuak sortu ziren AEDren eta beste zenbait Euskara Elkarteren eskaerei erantzunez. Departamenduhorietatik bideratzen dira aurretik herrietako Euskara Elkarateek egiten zituzten hainbat lan.

Bestalde, 1991n Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA) sortu zen. Erakunde honen sorrera urrats garrantzitsua izan zen udalerri euskaldunetan Euskararen erabilera sustatzeko eta bermatzeko. Gune euskaldunetan Euskararen erabilera arlo sozial guztietara zabaltzea eta udal euskaldun guztiekin Euskara nagusi izango den eremua antolatzea da UEMAren helburu nagusia. Erakunde honen iritzi, Euskara hizkuntza nagusia izango den eremua errazago lortuko da udalerri euskaldunetan euskara lehen hizkuntza, funtzio nazionala beteko lukeena, izatera iristen bada. Udalerri horietan normalizazio bidea erdaldunetan baino errazagoa delad dio Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak eta horretara zuzentzen du bere jarduna.

Euskalgintzaren fruitua

Euskararen berreskuratze eta normalizazio bidean lehen urratsak eman zituen belaunaldiari esker, hurrengo belaunaldiak hitzun oso bihurtzeko AB ibilbidea egin ahal izan dute. Hala da, Euskararen transmisio naturala jasotzeaz gain, Euskaraz alfabetatzeko modua eta bitartekoak izan dituzte. Aurrekoek egindako lanaren fruitua eta onurak jaso dituzte.

Duela 40 bat urte jaiotako belaunaldiak hizkuntzari lotutako erabilera esparru berriak izan zituen: hedabideak Euskaraz, hezkuntza Euskaraz, kulturegintzako era guztietako produktuak (literatura, antzerkia, musika...), euskarri desberdinetan Euskara entzun eta erabili ahal izateko bitartekoak... Horrez gain, ezagutza Euskaraz izateko aukera eta Euskarari buruzko ezagutza oso modu profesionalean edo profesionalizatze bidean jaso ahal izan zuen, ordura arteko euskaldunek sekula jaso ez zuten bezala.

Belaunaldi hark Euskararen alde lan egiteko ilusioa, konpromisoa, ardura eta kontzientzia edan zituen Euskalgintza modernoan lehen urratsak eman zituztenen iturritik. Haiengandik jaso zuten zailtasunak aukera bihurtzeko jarrera sortzaile eta eraikitzailea ere.

Gaurko haurrek ez dute zuzenean jaso aurrerapauso haiek garai hartan zuten zentzua eta esanahia.

Hala ere, Euskararen biziberritze ahalegin horretan egin diren aurrerapauso horien guztien zentzua lurrundu egin da bidean, ez da gaur egungo belaunaldiengana iritsi. Gaurko haurrek ez dute zuzenean jaso aurrerapauso haiek garai hartan zuten zentzua eta esanahia. Produktua bakarrik iritsi zaie, baina hori bezain garrantzitsua da jaso ez dutena: produktuaren zergatia, zentzua.

Bestalde, berreskuratze prozesuan ezagutzaren transmisioan eta hizkuntzari funtzioak emateko lanean egin zen ahalegin handiena, horrek zuzen-zuzenean erabileran eragingo zuela pentsatuz, baina gaur egun nabarmena da erabilera ez dela ezagutzaren erritmo berean hazi. Hori da, Euskararen berreskuratze eta normalizazio prozesuan izan den argilunetako bat, eta etorkizuna Euskaraz egin dadin jorratu beharreko esparruetako bat.

Oro har, ondo eta gaizki egindako nahiz hobetu beharreko urratsez betetako prozesua izan da. Hala ere, urte hauetan euskaldunek lan handia egin dute Euskararen egoerak hobera egin dezan eta horren emaitza da egungo Euskararen herria.



SINTESIA: OINARRIZKO IKASGAIAK

Euskararen berreskuratzearen zenbait gako

- Hizkuntza da gunea

Euskararen esperientziak oinarritzko intuizio bat baieztatzen du: hizkuntza herriaren bihotza dela, kultura zabal-tzen duen gunea dela. Hizkuntza ez da kulturako elementu bakarra, baina bai

kulturaren garraiobidea eta materia-la, kultura horrek bizitzan duen lekua-ren ardatza. Mende edo milurtekoe-tan izandako sormen intelektualaren, sentimentalaren eta herriak izandako bizitzaren emaitza da hizkuntza, eta herriaren euskarri da kulturak bizirik jarrai dezan. Hau da, kosmobisio elementuek, lurrarekiko eta ekonomiarekiko harrema-nek, errituek, sormenek eta herri bateko gainerako kultur elementuek herri horren hizkuntza dute ardatz.

Hizkuntza bat galtzen den lekuan, jato-rrizko herri bat desagertzen da jarraipe-naren ardatzean. Litekeena da filosofia, folklore eta kultura elementuek bakarturik

edo lotuta irautea, baina bizirik dagoena ez da herria, antzeko ezaugarriak dituen beste herri baten zati bat baizik.

• Emozionalitatea garrantzitsua da

Hizkuntza eta nortasuna berreskuratzeke, oso garrantzitsua da taldearen gogo-aldarteak. Izan ere, taldearen gogo-aldarteak edo emozionalitateak bultzatzen ditu nortasuna garatzeko politika eta kultura estrategiak. Euskararen historian jauzi kualitatiboak izan dira askotan komunitatearen emozio eta sentimenduetan, zenbait pertsona garrantzitsuk horiek eragiten asmatu dutelako. Jauzi horiek dira politika eta kultur jardueraren oinarriak.

Izatearen harrotasuna, jatorrizko herriaren auto-konfiantza, funtsezko sentimendua da Euskara berreskuratzeke prozesuan. Gutxiengoan edo mendean dauden herriek une historikoak behar dituzte, harrotasuna pizten duten liderrak edo gertakariak, pilatutako mespretxuaren zama berdintzeko eta bere jatorri-nortasunetik zentratuta bizitzen saiatzerakoan izango dituzten zailtasunei aurre egiteko.

Euskara berreskuratzeke prozesuan parte hartzen duten belaunaldiak bereziki barneratuta dute euskaldun izatearen harrotasun hori. Euskaldun izatearen sentimendua bizi dugu, guretzat oso garrantzitsua da, handia, eta horren aldeko konpromisoa hartu

nahi dugu. Gure nortasuna azpimarratzeko indar horrek gehiegizkoa dirudi batzuetan, baina historiaren zenbait unetan beharrezkoa da, gure hizkuntzan bizitzea galarazten diguten inertzia gaingintzeko. Jasotako mespretxuari aurre egiteko, irmotasuna behar baita. Besteen mende dauden komunitateek emozio positiboak aktibatu behar dituzte, harrotasuna (menperatuta daukan kultura nagusiaren aurrean berezia dela sentitzeraino askotan) eta amets egiteko gaitasuna.

Emozioetan eragina dute artistek eta literatur edo musika ekoizpenek. Poemek, liburuek, abestiek, jaiek, arte plastikoek edo eszenikoek auto-konfiantza elikatzen duten, eta komunitateek beren nortasuna indartzeko duten gaitasunean eragiten duten ametsak eta emozioak aktibatzen dituzten sinboloak sortzen dituzte.

• Tradiziozkoa modernoa da

Euskararen kulturak uztartu egin ditu antzinako eta tradiziozko izaera, eta modernotasunerako eta berrikuntzarako joera. Hain zuzen ere, antzintasun eta sustrai sakonetatik abiatuta, modernotasun sentimendua eta abangoardia gogoa sortu dira. Azken hamarkadetan Euskararen kultura sentimendu zahar eta modernoa izan da Euskara berpiztu duten belaunaldientzat. Euskal poetek, artistek, musikariek eta kultur sortzaileek jatorrizko sustraiak eta garai berrie-

tako aukera sortzaileak uztartzearen alde egin dute. Eta horri esker, gure nortasuna eta gure kultura orainerako eta etorkizunerako dela sentiarazi digute.

• Gizarte ekimena da motorra

Euskara eta Euskararen kultura berreskuratzeke eragile garrantzitsuena gizarte ekimena edo zibila izan da. Gizartean sorturiko erakundeak ezinbestekoak izan dira berpizteko prozesu honetan.

Euskara berreskuratzeke oinarri nagusiak diktadura garaian sortu ziren, botere publikorik edo politikorik ez zegoenean. Urte haietan finkatu ziren euskal kultura berpizteko oinarriak: 1) emozionalitate harro eta eraikitzailea berpiztu zen 2) Euskara idatzi estandarra finkatu zen, 3) jatorrizko hizkuntzan irakasteko eskola hegemonikoak sortu ziren, 4) Euskarazko kultur sormena bultzatu zen, eta 5) bestelako hainbat hizkuntza eta kultur ekimen sortu ziren.

Ondoren, erakunde publiko autonomikoak sortu zirenean, botere publikoak ere garrantzia hartu zuen zenbait lurraldetako hizkuntza eta kultura berpizterakoan. Hala ere, gizarte-eragileak ezinbestekoak dira prozesu horretan, eta erreferentzia nagusi dira ikuspegi eta estrategiara-



**Antzinatasun
eta sustrai
sakonetatik
abiatuta,
modernotasun
sentimendua
sortu da.**

ko. Hain zuzen ere, bi eragile horien arteko lankidetzak ezinbestekoa da euskal kultura berpizteko prozesuan: gizarte-eragileak eta eragile publikoak. Hala ere, bien arteko adostasun eta onarpen faltaren ondorioz, indar asko galdu da askotan.

• Batasuna lehentasun

Gainbehera arriskuan dagoen hizkuntza gutxitu bat berreskuratzeko, helburu hori duten guztien indarrak batu behar dira. Euskararen kasuan, batasuna ezinbestekoa izan da aurrerapena garrantzitsua izan den arloetan. Izan ere, zenbaitetan izandako batasun faltaren ondorioz denbora, indarra eta ahalegina galdu dira.

Corpusa estandarizatzeko (idatzizko Euskara batua...) prozesuak, esaterako, batasun ahalegin bat hartu zuen oinarri, eta hori lortzea ezinbestekoa izan da ondorengo garapen osorako. Bigarren gako nagusia ere, Euskarazko irakas-kuntza, batasun esparru batek, ikastolen mugimenduak, alegia, ahalbidetu du. Oro har, askotariko joera politikoak elkartzea izan da hizkuntza eta kultura berreskuratzeko proiektu handien oinarria, zenbaitetan zaila eta erlatiboa izan den arren.

Hizkuntza komunitateak zatiketa politikoa gainditu behar du. Horretarako, ezinbestekoa da argi ikustea batzen gaituzten gauzak (kultura eta hizkuntza komunitateak) banatzen gaituztenak (politika ikuspegiak) baino gehiago direla. Hizkuntza eta kultura berreskuratzeko estrategiek

lankidetzak esparruak sortu behar dituzte etengabe.

Ez dago bigarren mailakoa izateko sortzen den hizkuntzarik.

• Hitzun osoak sortzea

Jatorrizko hizkuntzako hitzun osoak sortzea da egun hizkuntzek bizi-raun dezaten modu bakarra. Jatorrizko hizkuntzan funtzio natural eta kulturalak betetzen dituen hitzun osoa: familian, gertuko komunitatean, idatziz, artean, ikerketan eta bestelakoetan berezko hizkuntzan aritzen dena.

Euskararen kasuan, 60-70eko berpizkunderen aurretik, ez zegoen hitzun osorik. Gure gurasoak eta aitona-amonak hitzun naturalak ziren (familian, inguruan, eta abar), baina ez ziren hitzun osoak, erdara behar zuten idatzeko, irakurtzeko, ikertzeko eta abar. Gure belaunaldiak bi aukera zituen: azken belaunaldi euskalduna izatea (hitzun oso bihurtu ezean, hamarkada gutxiren buruan hizkuntza desagertuko zelako) edo hitzun osoen lehen belaunaldia izatea. Gure gurasoen belaunaldiak jatorrizko hizkuntzako eskola hegemonikoak sortzearen aldeko apustua egin zuen eta horri esker hitzun osoak gara orain. Egundak hitzun osoen kopurua nahiko handia da, eta

hori da hizkuntzaren bizitzaren gunea. Gure belaunaldia hizkuntzaren bidegurutzean egon zen, heriotzaren eta biziaren artean: desagertu edo hitzun osoak sortu. Bigarren bidea aukeratzea ezinbestekoa da eta hala ere ezin da ziurtatu hizkuntza osasuntsua izango denik. Baina ez zegoen tarteko biderik. Egun ere, jatorrizko hizkuntzentzat ez dago tarteko biderik.

- Gure gurasoen belaunaldiaren meritua izan zen apustu horren alde egitea. Hain zuzen ere, seme-alabak hitzun oso gisa irudikatu zituztelako. Gure gurasoak hitzun naturalak ziren, baina bazekiten haiek baino euskaldun osoagoak izan behar gurela.
- Ez dago bigarren mailakoa izateko sortzen den hizkuntzarik. Hitzun osorik sortzen ez duen hizkuntzak ez dauka XXI. mendean bizirauteko modurik, informaziorako eta teknologiarako sarbidea orokorragoa baita. Idazkera estandarrik, heziketa hegemonikorik eta jakintzaren eta teknologiaren munduansarbiderikez duten jatorrizko hizkuntzek hamarkada batzuk baino ez dute iraungo. Mende hau erabakigarria izango da munduko jatorrizko hizkuntza gehienek biziraungo duten jakiteko. Eta hitzun osoak sortzea izango da gakoa.

**Sistema elebidunetan
hizkuntza indartsuena
nagusitzen da beti.**

• Esparru hegemoniko irekiak sortzea

Elebitasuna tranpa izaten da askotan jatorrizko hizkuntzarentzat. Eskola edo komunikabide elebidunak hizkuntza nagusia indartu eta jatorrizko hizkuntza areago ahultzen duten sistemak izaten dira. Sistema elebidunetan hizkuntza indartsuena nagusitzen da beti, ezinezkoa da berdintasuna lortzea. Horrela izan da historia osoan. Euskararen esperientziak erakusten duenez, jatorrizko hizkuntzarentzako esparru nagusien sistemak dira hizkuntza berreskuratzen lagundu duten estrategia bakarrak.

Hizkuntzak berezko esparru hegemonikoak behar ditu bizirik iraungo badu. Eskola elebidunek, argitalpen elebidunek, telebista elebidunek... ez dute balio jatorrizko hizkuntza berreskuratzeko. Zergatik? esparru horietan hizkuntza nagusia gailentzen delako, ez dago elebitasun errealik. Elebitasuna faltsua da ia beti. Eskola, telebista, aldizkari, erakunde eta familia bakoitzean hizkuntza nagusi bat dago, eta haren mende erabiltzen diren beste hainbat hizkuntza. Baina zein da esparru bakoitzerako nahi dugun hizkuntza hegemonikoa?

Normalean, jatorrizko hizkuntzek ez dute esparru guztietara iristeko aukerarik. Baina oso gutxi hartzen baditu ere, horiek hartu behar dira abiapuntu. Esparruak izatea da garrantzitsua (hobe da esparru hegemoniko gutxi

izatea, menpeko esparru elebidun asko izatea baino), eta pixkanaka berriak sortzea. Horixe da eleaniztasunerako edo kulturartekotasunerako bide erreal bakarra. Halakorik ezean, kulturartekotasuna ezarritako hizkuntzaren nagusitasuna ezkutatze modu polita da.

Euskararidagokionez, jatorrizko hizkuntza nagusi duten eskolek edo esparruek baino ez dute hizkuntza berreskuratzen lagundu. Era berean, esparru horiek beste hizkuntza batzuk ikasteko esparru irekiak ere izan daitezke (Gaztelania, eta abar).

• Kantitatea eta kalitatea

- Euskara biziberritzeko estrategietan pauso zuzenak eta okerrak eman dira, edo hobetu beharreko alderdiak. Hitzun kopuruari edo kopuruari oro har (liburu, aldizkari eta produktu kopurua) gehiegizko garrantzia ematea, esaterako, askoren alderdi kualitatiboak alboratuta. Horrek arazoak sortu ditu. Jatorrizko hizkuntza ikasten ari ziren haur eta heldu askok, esaterako, ez zuten kalitatezko adierazkortasunez ikasten hizkuntza, ondoren hizkuntzak izan zezakeen komunikatzeko gaitasun osoarekin erabili ahal izateko, eta ez gutxieneko kalitatearekin.
- Azken urteetan garrantzia handiagoa eman zaie hizkuntzaren kalitate alderdiei. Hizkuntza kultur nortasunaren ardatza da, baina baita komu-

nikabide konplexu eta aberatsa ere. Beharrezkoa da hizkuntzaren komunikazio alderdiak zaintzea eta gartztea, hizkuntzaren alderdi sortzaileak, alderdi ludikoak eta filosofikoak. Hizkuntzak gozatzeko, komunikatzeko, artea sortzeko eta jakituria sakontzeko dira.

- Garrantzitsua da hizkuntzan etengabe sakontzea, eta aberastasun osoan transmititzea. Horretan datza hizkuntzaren balio erantsi paregabea. Hizkuntza bakoitzak berezko oihartzuna du poesian, filosofian, eskualdean, familian, eta bestelakoetan. Emari hori guztia komunikatzeko eta adierazteko aberastasun osoan, transmititu, birsortu eta garatu behar da.

• Berreskuratze-erreminta handiak

Lau erreminta handi daude hizkuntzak berreskuratze prozesuan. Bestelako hainbat estrategia eta ekintza beharrezko ere badaude, baina lau hauek dira oinarrizko eta garrantzitsuenak Euskara berreskuratze prozesuan. Oinarrizkoak izan daitezke halaber, mende honetan bizirik iraun nahi duten gainerako jatorrizko hizkuntzentzat.

- **Corpusa:** hizkuntzaren corpusa estandarizatu eta garatu. Hau da, idazkera edo idazkerak bateratu edo estandarizatu, terminologia berria garatu eta oro har, hizkuntza egungo eta etorkizuneko funtzioetarako

prestatzeko estrategia guztiak landu. Funtsezko urratsa da. Ezinbestekoa da ondoren jatorrizko hizkuntzan irakasteko, eta gainerako ekintza nagusietarako.

- **Heziketa:** jatorrizko hizkuntzaren hegemonian oinarritutako heziketa-sistema sortzea. Jatorrizko hizkuntzako hitun osoak sortzea helburua duen heziketa. Ez da nahikoa heziketa elebiduna, jatorrizko hizkuntza bigarren mailan uzten duena. Lehen hezkuntzan hasi eta unibertsitatetara inoko bidea eskaintzen duen heziketa izan behar du, jatorrizko hizkuntzan. Hauxe da estrategia garrantzitsu eta eraginkorrena, jatorrizko hizkuntzaren eta haren kulturaren etorkizunerako.
- **Komunikabideak:** telebista, irrati, prentsa eta Internet bidezko komunikazio-sistemak jatorrizko hizkuntzan sortzea. Hemen ere bide elebidunak ez dira egokiak oro har, esparru hegemoniko irekiak baizik. Egun teknologiaren zibilizazioan bizi gara eta funtsezkoa da bizirik iraun nahi duen hizkuntzak komunikabideetan funtzioak izatea.
- **Kultur sorkuntza:** musika, literatura, arte, ikus-entzunezko sorkuntzak eta era guztietako kultur ondasunak, jatorrizko hizkuntzan eta kulturaren bitartez, jatorrizko hizkuntzak eta kulturak beren balio erantsi aparta birsortzen jarraitzen dute. Sormen horren bitartez, hizkuntza komunitateak

jatorrizko herri gisa bizitzeko borondatea, autoestimua, eta iraganeko eta etorkizuneko ametsak elikatzen ditu. Kultur sormena da komunitate baten erregai sinbolikoa. Komunitatea zer den idazten, abesten, sinbolizatzen eta ospatzen du, izan nahi duena eta amesten duena. Euskarari dagokionez, literatura, bertsolaritza eta abestia oso garrantzitsuak izan dira kultura berpizteko ahaleginak elikatzeke. Hori guztia aintzat hartu gabe, zaila da gutxiengoan dagoen jatorrizko hizkuntza-komunitate batek bere nortasuna suspertzeko indarra eta motibazioa izatea.

Mezuak, euskararen esperientzia oinarri hartuta

Munduko jatorrizko hizkuntzen egoera erreala aztertuz, hiru mezu azaldu dizkiegu kontinente guztietako elkarte eta erakunde indigena guztiei.

- **Alarma mezua:** jatorrizko hizkuntzak galtze prozesu larrian daude egun. Hizkuntzen transmisioa galtzea atzerazenezkoa izan liteke, historian

Hizkuntza galtzen bada, jatorrizko herriaren nortasun ardatza galtzen da.

desagertu diren hizkuntza askoren prozesuaren esperientzia eta ezagutza kontuan hartuta. Egoera oso larria da. Baina erakunde "indigenek" egoera larri honen inguruan duten kontzientzia falta da alderik larriena, nortasunari buruzko bestelako diskurtsoek desitxuratuta. Ezinbestekoa da prozesuaren larritasunaz kontzientzia hartzea.

- **Esperantza mezua:** posible da jatorrizko hizkuntzak berpiztea. Euskararen eta beste hainbat hizkuntza-ren esperientziak argi erakusten du badirela hizkuntzen biziaren zati bat berreskuratzeko estrategiak. Borroka luze eta zaila da, eta hainbat faktore korapilatsu daude, baina herriak bizirik irauteko borondatea badu, posible da berpiztea.
- **Erantzukizun mezua:** jatorrizko herriek beren hizkuntzak eta kultura berpizteko ardura hartu behar dute. Herriaren eta bere erakundeen ardura da. Ez da aski eskubideez eta nortasunaz hitz egitea. Beren hizkuntzak eta kulturak berpizteko egiturak eta estrategiak sortzeko konpromisoa hartzen duten jato-


rizko herriek baino ez dute teknologia globalizatuaren mende honetan bizirik irauteko aukera.

Hiru mezu horiek barneratzeko, oinarrizko premisa bat ulertu behar da: hizkuntzak dira kulturen bihotza, gunearen garraibide dira. Hizkuntza galtzen bada, jatorrizko herriaren nortasun ardatza galtzen da. Ideiak, kosmobisioen zatiak, folklorea, zenbait ohitura, eta bestelakoak geratuko dira, antropologoentzat interesgarriak, turistentzat exotikoak, mamitsuak liburuak argitaratu nahi dituzten editoreentzat, eta interesgarriak proiektuak lortzen jarraitu nahi duten erakundeentzat. Baina egiazki kultura galduko da, hizkuntza delako kulturaren egiazko aberastasuna artikulatzen, ulertzen, suspertzen eta adierazten duena.

Hizkuntzak ematen digu nortasuna. Hizkuntzaren alde borrokatzea norberaren alde borrokatzea da, norberak barnean duen kulturaren alde borrokatzea. Hizkuntzen biziaren alde egotea, munduko hizkuntza guztiak maitatzea da. Munduko herri guztien berdintasunaren alde lan egitea da, eta oinarrizko errespetu horretan oinarritutako harremanak bilatzea. Norberarengandik hasita, jatorrizko herrien oinarrizko intuizioa bizitzea da: giza dibertsitatea zaintzea, nortasun irekia edukita.

BIBLIOGRAFIA

- Abasolo, Resu / Lopez de Muniain, Juana / Urbe Irazusta, Arantxa. *Ilunetik argira: Elbira Zipitria*. Xangorin. 2004.
- Askoren artean. *Euskal Herria: errealitate eta egitasmo*. LKA. 1984.
- Askoren artean. *Euskararen liburu zuria*. Euskaltzaindia. 1978.
- Askoren artean. *Hizkuntz borroka Euskal Herrian*. Euskaltzaindia. 1979.
- Etxegoien, Juan Carlos. *Euskara Jendea: gure hizkuntzaren historia, gure historiaren hizkuntza*. Pamiela. 2006.
- Etxegoien, Juan Carlos. *Orekan: herri eta hizkuntzen ekologiaz*. Pamiela. 2001.
- Fernandez, Idoia. *Oroimenaren hitza: ikastolen historia 1960-1975*. UEU. 1994.
- Gartzia, Joxerra. Sarasua, Jon. Egaña, Andoni. *Bat-bateko bertsolaritza: gakoak eta azterbideak*. Bertsozale Kultur Elkarte. 2001.
- Intxausti, Joseba. *Euskara, Euskaldunon hizkuntza*. Eusko Jaurlaritza. 1990.
- Iñurrategi, Iñigo . *Herriak eta Hizkuntzak: hizkuntzen ekologia*. HUHEZI. Mondragon Unibertsitatea. 2006. (Argitaratu gabea).
- Jauregi Etxaniz, Pello. *Oinarriko taldeak eta Euskara: bihotzaren arrazoiak*. 2009.
- Odriozola, Joxe Manuel. *Euskaingintzaren lekukoak*. Elkarlanean. 2004.
- Sánchez Carrión, José María. *Lengua y pueblo*. Elkar. 1980.
- Sánchez Carrión, José María. *Un futuro para nuestro pasado: claves de la recuperación del Euskara y teoría social de las lenguas*. 2. edizioa 1991.
- San Martin, Juan. *Euskararen ostarreak*. Erein. 1998.
- Sarasua, Jon. *Biziaren hizkuntzaz: Txepetxekin solasean*. Gara. 1997.
- Torrealдай, Joan Mari. *Euskal Kultura Gaur: liburuaren mundua*. Jakin. 1997.
- Torrealдай, Joan Mari. *El libro negro del euskera*. Ttarttalo. 1998.
- Zuazo, Koldo. *Euskara batua: ezina ekinez egina*. Elkar. 2005.



Garabide Elkartea